

94. - 95. zk.

2000ko urria - azaroa
(ale berezia)



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Franko itundua 48/27



EZ NAZAZU ERAKUSLEHIOAN JAR...

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Iragar Zaituz!

aldizkarian

¡Anúnciate!

- **GEU elkartearen ekimenez sortua 1992. urtean.**
- **Euskararen normalkuntzaren alde lanean.**
- **Gasteizen, hilero, euskara hutsez argitaratzen den aldizkari bakarra.**
- **2.500 etxetara iristen da.**
- **Plurala eta denetiko gaiak: euskara, kultura, gizartea, umeak, elkarrizketak, erreportajeak, kirola, musika...**
- **Publizitatea ezinbesteko diru-iturria da.**
- **10.000 irakurle.**



ETORKIZUNA EUSKARAZ DATOR!



*Pedro Asua kalea, 2 -3. solairua
Tfnoa. eta Faxe:
e-mail: geugaste@grn.es*

Geu aldizkariko harpidedunentzako oharra

Esku artean duzuen alea ez da ohiko alea: urria eta azaroko hileetako ale berezia duzue. Horrela izanda, potolo-xeagoa egin nahi izan dugu, 48 orrialdekoa. Baina honek guztiak bere azalpena du, zeina labur-laburki azalduko dizuegun: Uztailaren bukaeran Arabako Foru Aldundiak Geu aldizkariari dirulaguntza ukatzea erabaki zuen. Erabaki bidegabe honetan eta bere geroko eta ondorioetan oinarritutako monografikoa prest geneukan, zeina bertan behera utzi behar izan genuen, irailaren 22tik aurrera (Pedro de Sancristoval kultur diputatuarekin bildu ostean) gauzak aldatzen hasi zirelako... Beraz, ateratzear genuen ale monografikoa eta bertan jasotako iritziz guztiak ez zetozen bat egoera berriarekin. Hau dela eta, egokiagotzat jo genuen ALE BEREZI hau ateratzea, geroko aleetako atzerapenak ekiditzeagatik, eraginkortasunagatik eta aldizkariaren kalitatea zaintzearen. Guztiok ulertuko duzuelakoan, barka itzazue sorturiko eragozpenak. Eskerrik asko eta beti arte:

Geu aldizkariko taldea.

***9. orritik 14. orrira bitartean prestatu dugun erreportajea gai honen gaineko informazio osatua aurkituko duzue (azkenean, Arabako Foru Aldundiak 709.000 pta. ematea deliberatu du...).**

**“Harpidedun berrien bila gabiltza...
Zuk baten bat ezagutzen al duzu?
945 22 21 53!”**

hilabete honetan

5.-7. orr.:

Zizka-mizkak

9.-14. orr.:

**Arabako Foru Aldundia &
Geu aldizkaria**

15. orr.:

Geu Elkarte. Geurekin Mendira

16.-19. orr.:

Filmez film Azul Zineman



21.-23. orr.:

**Kozkortuz: Plisti-Plasta eta Kili
eta Kolo**

24.-25. orr.:

**“Txeroki” Iñigo Sarasolaren
eskutik: Arabako Foru Aldundia
& Geu aldizkaria**

27.-30. orr.:

**Mari Carmen Perez de Albeniz.
Munain. Gaztagintzan garaile**



32.-35. orr.:

**Gorputz biluziak
erakuslehioetan, Udalak stop**



37. orr.:

**Euskal Labirintoak eta
Pasadizoak...**

38.-41. orr.:

Karmona kapitaina



42. orr.:

“Zikloak”. Joseba Olalde

44.-45. orr.:

**Zeuk aukeratu!-Geu aldizkariak
gomendatzen du...**

46. orr.:

**Emaize Sexologia Elkarte:
Sexualitatea eta Gazteria.
HELDU GAIARI**

termometroa



“Eta emakumeari sugeak esan zion” nobelari esker Lourdes Oñederrak Euskadi Literatura saria irabazi du. Sariok Lakuako Gobernuak urtero ematen ditu, eta sortu zirenetik aurten lehen aldiz bi emakume izan dira saridunak (Itzulpengintzako Euskadi Saria ere Irene Aldasoro itzultzaile idiazabaldarrak bereganatu du eta).



Lourdes Oñederra:

- Jaioterria:
Donostia
- Bizitokia:
Gasteiz
- Hizkuntzalaria eta idazlea.
Gasteizko Filologia Fakultatean irakasten du.
- “Eta emakumeari sugeak esan zion” bere lehen nobela da. Nobela aurkeztu zenetik eskuratutako sariak: Kritika, Beterriko Liburua, Zilarrezko Euskadi eta Euskadi. Baita Espainiako Narratiba Sarirako finalista ere.

Zorionak Lourdes Oñederra!!!



GEU Elkartearen ekimenez eginga

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate.
Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.
Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.
Argazkiak: Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Mikel Valverde. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldua, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain eta Itziar Uriarte.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz eginga dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



zenbakia

10
urte



Zorionak Euskal Herria



EUSKALDUNON EGUNKARIA
Zorionak Euskal Herria!





Gasteizko 1906. urteko argazki hau aurkitu dugu, baina badakizue zein kale den? Adi datorren aleari!

"Vitoria-Gasteiz, viejos recuerdos... ...para un tiempo nuevo" liburutik aterata (Caja de Ahorros de Vitoria, Gasteizko Kutxa, 1988).



izenak

OSTIELA! hiruhilabetekaria

- Dagoeneko 19 zenbaki kaleratu dituzte (2000ko udazkenekoa dugu honakoa)
- "Aldizkari paganua"
- Argitaratzailea:
PAPERZALEAK KULTUR ELKARTEA
- Helbidea: 131 posta kutxa, 20240, Ordizia.
Tlfno.-faxes: 943 16 18 35.
Elektroposta: ostiela@autovia.com
- Urteko harpidetza: urtean 4 ale, 1.600 pta.
- Tirada: 2.000 ale
- Ale honetako gaiak: sexua, drogak eta rokanrola.
*Ale berezia: Drogalandia (Drogis guais?!, iritziak; Drogei buruz jakin nahi zenukeen guztia: motak, eraginak, kalteak...; Sorgin zorrotzak, Amanita Muskaria, Jesukristo eta Perretxikuak, e.a.). Honez gain: *Bertold Brecht, Boris Vian, M.A. Meabe, Markuleta, Pako Aristi, Asier Serrano, "Paperzaleak" kideak...
- Orain ere internet-en: www.ostiela.com / Ostiela!-ren gunea.



naturaren isladak

Arabako Natur Institutua Araba eta bere inguruko Ondare Naturala aztertzea, dibulgatzea eta konserbatzea helburu nagusiztat dituen elkarte zientifiko eta kulturala da. (tfnoa: 945 24 66 06)



MIKO
izozkiak

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okidegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LIBURUDENDA
axular
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

**MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK**
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Campusean
• liburudenda
• paperdenda
• informatika
bertan
Arriaga
Campus
Unibertsitate Pabilioia
Apraiztarrak, 1

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizenziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
behar duzun
guztia
PAPERTEGI TEKNIKON

ARANBIZKARRA
**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

**Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multieskaintzak
Orain familia osoarentzat.**

**Multiofertas
MULTIOPTICAS**

Bonardi bilduma
Guztientzat
Erref: B0003
3.800 pta.n
22,84 €

EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO
Lente Progresiboak
Gurasoentzat
19.500 pta.tik aurrera
117,20 €

**ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a**

**MENDIAOPTIKA
MULTIOPTICAS**
Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ


www.multipticas.com

Kultur arloko



dirulaguntza



Istorio luze bat

**2000. URTEA: 709.000 PEZETAKO
DIRULAGUNTZA LORTZEKO BIDE HARRITSUA**

“Pozik bezain kezkatuak agertzen gara gertatu den guztiagatik”

2000. urtea, Arabako Foru Aldundia, Kultur arloko dirulaguntzak... Hau amesgaiztoa, hau gainean eroritako harria... Kontu luzea, desatsegina eta edozein proiektu blokeatzen duena, ezin hel dakiokeelako ohiko funtzionamenduari, ezin eutsi dakiokeelako normaltasunez funtzionatzeari, bide erdian harritzarra jarri dizutelako eta erditik kendu artean hor ibili behar denbora ugari inbertituz... Kontu honen guztiaren prozesua lau fasetan laburbildu daiteke:

Testua: E.B.Z.

• A) fasea. “DIRULAGUN-TZA UKATUA 1”: uztailleko alean argitaratu elkarrizketa bat, arrazoia omen (Diputazio barrutik jasotako informazioa).

• B) fasea. “DIRULAGUN-TZA UKATUA 2”: dirulaguntza ukatzearen arra-

zoia ez dela elkarrizketa izan... Ze elkarrizketa???? Irizpide teknikoak argudiatzen ditu Diputazioak, publi-kontratu batez mintzo dira (EXISTITZEN EZ DENA, gainera), fizkiozko kontratua, alegia.

• C) fasea. “Geu aldizkaria-

rekin ez da ezer gertatzen”, hots, ez zaigula dirulaguntza ukatu...

• D) fasea. Arabako Foru Aldundiak komunikabideei jakinarazitakoa: Geu aldizkariari 709.000 pezetako dirulaguntza emango diola.

HAU IRAKURRITA HEMEN AURKEZTEN DIZUEGU “709” PELIKULA 3 FORMATUTAN: A ARETOAN, “ZALDIKO-MALDIKO FORMATUAN”, B ARETOAN “3 DIMENTSIOAN”, ETA AZKENIK C ARETOAN “ZINE BELTZA”. AUKERATU NAHIAGO DUZUE NA:

• UZTAILAREN BUKAERA: GUZTIOK MEREZITAKO UDAKO OPORRAK USAINTZEN GAUDELA... HORDAGO!: DIPUTAZIOAK GEU ALDIZKARIARI KULTUR ARLOKO SUBENTZIOA UKATZEN DIOLA JAKITEN DUGU.

• ARRAZOIA EZAGUTU NAHI ETA EZIN... KULTUR DIPUTATUA-REKIN (PEDRO DE SANCRISTOVAL) BILDU BEHAR DUGULA, ETA HAU OPORRETAN DAGOELA: IRAILAREN 6RAKO EMATEN DIGUTE HITZORDUA. GERO 6AN EZIN DELA ESAN ETA 7AN BILDUKO GARELA. BEZPERAN DEITU ETA 7AN EZIN DAITEKEELA, IRAILAREN 22RA ARTE EZIN IZANGO GARELA KULTUR DIPUTATUAREKIN BILDU; HOTS, EZ DIGUTELA SUBENTZIOA UKATZEAREN “ZERGIATIA” AZALDUKO ORDURA ARTE.

• TARTEAN ITURRI OFIZIOSOETATIK GUK JAKITEN DUGU ZERK BULTZATU DUEN DIPUTAZIOA ERABAKI HAU HARTZERA: UZTAILEAN JOSE MANUEL GIMONI, PRESO OHI GASTEIZTARRA, EGINDAKO ELKARRIZKETAK.

• GEU-N GERTATURIKOA ZABALTZEA ERABAKI, KONTUA GEHIEGI ATZERATZEN ARI BAITZEN, ETA LEHENENGO PRENTSA OHARRA BIDALTZEN DA, GURE PROIEKTUA GOGOZ DEFENDATUZ ETA ERABAKIA GOGORKI KRITIKATUZ.

1. Prentsa oharra

GASTEIZKO GEU ELKARTE ETA ALDIZKARIAREN PRENTSA OHARRA:

ARABAKO DIPUTAZIOAK GEU (GASTEIZ) ALDIZKARIARI SUBENTZIOA UKATU DIO

- Arabako Diputazioak Geu aldizkariari Kultur Saileko dirulaguntza ukatu dio (iaz 1.000.000 pta.)

- Arrazoia UZTAILEKO ALEAN argitaratu elkarrizketa bat omen da (iturri ofiziosoak). Oraindik ez digute arrazoi ofiziala eman.

- GEU ELKARTEAN ETA GEU ALDIZKARIAN EZ DA ERABAKI LARRI ETA OKER HAU INOLAZ ERE ONARTUKO.

- GEU ALDIZKARIA komunikabide bat den aldetik denetiko gaiak jorratzen ditu, eta aldizkaria gizarteari zuzendua dagoen heinean GIZARTEAN DAUDEN GAIK jorratzen dira, PLURALITASUN OSOZ, INOR ETA EZER BAZTERTU GABE.

- GEU ALDIZKARIA EZ DA DESAGERTUKO, BAINA ERABAKI HONEK BAI EGITEN DIOLA KALTE IZUGARRIA, ZAILTASUNAK IZANGO DITUGULARIK “NORMALITASUNEZ” AURRERA EGITEKO.

- Gasteiz osoari helarazi nahi diogu EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA helburu duen aldizkariaren aurka Arabako Foru Aldundiak harturiko erabaki oker eta bidegabe honen berri.

- Buru-belarri arituko gara lanean Geu aldizkariari behar bezala eusteko eta behar dugun 1.000.000 hori eskuratzeko, egitasmo honetan sinesten dugulako.

2000ko irailak 14

• EGUNKARI ETA IRRATIEN BIDEZ KONTUA ZABALTZEN HASTEN DA: EUSKALDUNON EGUNKARIA, GARA, DEIA ETA EL CORREO-N (ARABAKO EGUNKARIAN, EL MUNDON ETA EL PAIS-EN EZ), HALA BEDI ETA GASTEIZ IRRATIAN, BILBO HIRIA IRRATIAN...

• ALDERDI POLITIKOEKIN ERE HARREMANETAN JARTZEN GARA, ERNE EGON DAITEZEN: EA, EH, EB ETA EAJK EUSTEN DIOTE GAIARI.

• ELKARTE DESBERDINEI ERE GAIA JAKINARAZTEN DIEGU, EUREN ELKARTASUNA ADIERAZTEN DIGUTELARIK, ETA ERDU-K (ELKARTE ETA BOLONDRESENTZAKO AGENTZIA) ERE LAGUNTZEN DIGU BERE BOLETINAREN BIDEZ ARAZOA EZAGUTARAZTEN.



‘Geu’-k uste du Diputazioak laguntza ukatu diola preso ohi bat elkarrizketatzeagatik

Iturri ez ofizialetik jakin duenez, PPK dio ez duela finantzatuko «aldizkari politiko bat»

Luis Kerkos Garcia / Gasteiz

Geu aldizkari euskaldunak Arabako Diputazioaren informazio iturri ez ofizialak jakin du iragan lehen plazaratutako Geu 2000ko urria-azaroa



Sancho el Sabio Fundazioa

• DIPUTAZIOAK AZKAR ERANTZUTEN DIO HONI EGIA EZ ZIREN ADIERAZPEN BATZUK EGINEZ, ZEINAK GEZURTATU BEHAR IZAN GENITUEN. DIPUTAZIOAK ESANDAKOA: "GEU ALDIZKARIARI DIRULAGUNTZA UKATU ZAIO IRIZPIDE TEKNIKOENGATIK, URTE OSOKO PUBLI-KONTRATU BAT BAITU DIPUTAZIOAREKIN, ZEINAREN BIDEZ HIRUHILEKO BAKOITZEAN JASOTZEN DITUEN IA 300.000 PEZETA, HAU DA, OROTARA 1.200.000 PEZETA, DIRULAGUNTZAREN ORDEZKOTZAT HARTZEN DENA... ". BIGARREN PRENTSA OHARRA IRAKURRITA GARBI IKUSIKO DUZUE HAU GEZURRA DELA.

2. Prentsa oharra

ARABAKO FORU ALDUNDIAK GEU ALDIZKARIAN JARRITAKO PUBLIZITATEAREN INGURUAN

1999. URTEA (AURREKO LEGEGINTZALDIA):

58.000 X 6 HILABETE (URTARRILA-EKAINA): 348.000 PTA. (KULTUR ARLOKO SUBENTZIOAZ GAIN): DIPUTAZIOAREKIN ALDEZ AURRETIK LOTUTAKO AKORDIOA, HITZ EGINDA: HORRELA, BADA-KIZU ZEIN DIRUREKIN KONTATZEN DUZUN).

HORTAZ, 1999an DIPUTAZIOAK GEU ALDIZKARIARI EMANDAKO DIRUA: 1.348.000 PTA. (SUBENTZIOA + PUBLIZITATEA).

KULTUR SUBENTZIOA: MAIATZERAKO BAGENEKIEN ZENBATEKOA IZANGO ZEN. HORRELA, LAN EGIN DAITEKE, DIRU KOPURU ZEHATZ BAT ZIURTATUA DAUKAZULAKO.

2000. URTEA (LEGEGINTZALDI BERRIA):

-UZTAILA, ABUZTUA, IRAILA: EZIN EZER ZEHATZU GOBERNU ALDAKETAGATIK...

-1999ko URRIAN: DIPUTAZIOAK GEU ALDIZKARIAN JARTZEN ZUEN PUBLIZITATEA ETETEN DA, ETA AUERRERAGO JARRI NAHI IZATEKOTAN DEITUKO ZIGUTELA.

-2000ko MARTXOAN: PUBLIZITATEA JARRIKO DUTELA ESATEN DIGUTE:

*Ez da inolaz ere urte osorako partida konketu bat zehazten: "Aurrekontu txikia dagoela eta "sobre la marcha" joango dela zehazten...". PARTIDA ZIURRIK EZ, HORTAZ. "AUSKALO" BAT ETA LAN EGIN BEHAR JAKIN GABE ZE DIRUREKIN KONTATU DEZAKEGUN PUBLIZITATE ARLOAN... DENA BAT-BATEKOA ETA KOLOKAN, BERAZ. JAKIN BARIK AUERRERAGO ZER.

OROTARA, MOMENTUZ HAU DA PUBLIZITATE ARLOTIK AURTEN JASOTAKO DIRU KOPURUA:

00-URTARRILA: 0 PTA.

00-OTSAILA: 0 PTA.

00-MARTXOA: 0 PTA.

00-APIRILA-MAIATZA-EKAINA: 228.000 PTA.

00-UZTAILA-ABUZTUA-IRAILA: 136.000 PTA.

00-URRIA: 0 PTA.

00-AZAROA: 0 PTA.

00-ABENDUA: ?

- OROTARA PUBLIZITATEAN 2000. URTEAN: 364.000 PTA.

-OROTARA KULTUR SUBENTZIOAN: 0 PTA.

*HORRELA EGIN AL DAITEKE ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENIK?

2000ko irailak 15

«Geu» aldizkariak oraindik ez daki PPko Kultur Departamentutik aurtengo diru-laguntza jasoko ote duen.

«Geu»k urteroko dirua jasoko duen ez daki oraindik

Kultur diputatuak argitalpenen partida erabaki behar du

«Geu» aldizkariaren ordezkariak atzo bildu ziren, azkenik, Pedro Sancristoval Kultur diputatuarekin, diru-laguntza ukatzearen zergatia jakiteko. Sancristovalek, ordea, urtea amaitze-

ko gutxi falta denean, argitalpenei zenbat diru emango zaien erabaki gabe dagoela azaldu zien. Hala ere, ahaldunak hiru minutuko bileran ez zuen utzi elkarrizketarako aukerarik.

• AZKENEAN BILERAREN EGUNA IRITSI ZEN ETA HONA HEMEN KULTUR DIPUTATUAK ESANDAKOA:

3. Prentsa charra

GEU ELKARTEA ETA GEU ALDIZKARIAREN PRENTSA OHARRA.

*IRAILAK 22. PEDRO DE SANCRISTOVAL KULTUR DIPUTATUA ETA GEU ELKARTEA ETA ALDIZKARIAREN ORDEZKARIEN ARTEKO BILERA.

-BILERAREN HELBURUA: GEU ALDIZKARIARI KULTUR ARLOKO SUBENTZIOA UKATZEAREN ARRAZOI OFIZIALA EZAGUTZEA.

-BILERAREN NONDIK-NORAKOAK ETA EMANDAKO ERANTZUNA:

- KULTUR DIPUTATUAK UKATU DIGU GEU-RI ITURRI EZ OFIZIALETATIK IRITSI ARRAZOA* (*DIPUTAZIOAK GEU ALDIZKARIARI DIRULAGUNTZA UKATZEN DIOLA UZTAILEKO ALEAN GASTEIZKO PRESO OHI BATI EGINDAKO ELKARRIZKETA BATENGATIK).

- OSO BILERA MOTZA IZAN DA, 3 MINUTUKOA, ETA BERA ESAN DU DENA. EZ DUGU AUKERARIK IZAN EZER ESATEKO, GAIAREN INGURUAN HITZ EGITEKO... BERA ERANTZUNA EMAN DU eta bilera bukatu da.

- EMANDAKO ERANTZUNA: ELKARRIZKETARENA UKATU DU ETA PRENTSAN DIPUTAZIOKO ITURRIEK ADIERAZITAKOA ("GEU ALDIZKARIAK DIPUTAZIOAREKIN URTE OSOKO PUBLIZITATE AKORDIO BAT DUELA, ZEINAREN BIDEZ HIRUHILEKO BAKOITZEAN 300.000 PTA EMATEN ZAION...") -GEU-TIK UKATUTAKO KONTUA-, "ETA IRIZPIDE TEKNIKO HAU ZELA SUBENTZIOA UKATZEAREN ARRAZOA..." EZTA AIPATU ERE EZ DU EGIN. HAU IZAN DA EMANDAKO AZALPENA: "ORAINDIK EZ DUTELA ERABAKI ZER PARTIDA EMAN KULTURATIK ARGITALPENEI, GEU ALDIZKARIARI KASU HONETAN, ETA ERABAKI BEHAR DUTELA..."

- ONDOREN, "ERABAKIA EUSKARAREN ONERAKO IZANGO DELA" ESAN DU.



- GU ORAIN ERABAKI HONEN ZAIN EGONGO GARA, EPE LABURRERA NOSKI, MOMENTUZ EZ DAGOELAKO EZER ZIURTATUA ETA URTEA AMAITZEKO GUTXI FALTA DA... HORTAZ, ERABAKIAREN ZAIN ETA ERNE...

- HONEN GUZTIAREN AZPITIK ZER EGON DEN, ZER DAGOEN, DIPUTAZIOAK BAKARRIK DAKI...

GEU ELKARTE ETA ALDIZKARIKO ORDEZKARIAK
2000ko irailak 22

• ORDUTIK ZAIN, ETA URRIAREN 6AN DIPUTAZIOAK BERE PRENTSA OHARRA KALERATZEN DU: "LA REVISTA GEU RECIBIRÁ MÁS DE 700.000 PESETAS DE SUBVENCIÓN DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA".

• KOMUNIKABIDEETAN ATERATZEN DA, BAINA GURI DIPUTAZIOAK EZ DIGU EZER ZUZENEAN ESATEN... PRENTSAN IRAKURRITAKO INFORMAZIOA HONETAN OINARRITUA 4. PRENTSA OHARRA ATERATZEN DUGU:

4. Prentsa oharra

Foru Aldundiaren erabakiaren inguruan jasotako informazioa dela eta honako hau adierazten dugu:

- Geu-k ez duela inolako baieztapen ofizialik jaso, hau da, guri momentuz ez digute ezer komunikatu.

- Informazio honetan oinarrituta gure poza adierazten dugu, baina aldi berean kezka ere gertatu den guztiagatik.

- Erabaki hau uztaitetik hona Geu-tik egin den lanaren emaitzatzat hartzen dugu, hasieran hartutako erabakia, dirulaguntza ukatzearena alegia, eta erabilgaitako argudioa, erabat bidegabe eta okerrak izan baitira.

- Foru Aldundiko iturriek esan bezala 2000. urtean, beraz, Geu-ri emango zaion dirulaguntzaren kopurua (oraingo 709.000 pezetako kopuruari gehitu behar zaio Geu Elkarteari "Kultur Errota" eta "Euskara kalean bultzatzeko ekimenak" egitasmoetarako uztailan zehaztutako 820.000 pezetako dirulaguntza) eta 1999an eman zitzaionarena bera da. Bai, hala da, baina iaz aldizkariari 1.000.000 bat egokitu zitzaion, eta aurten, iritsitako informazioa zuzena bada, 709.000 pezeta egokituko zaizkio aldizkariari.

- Pozik bezain kezkatuak gaudela esaten dugunean argi dago zergatik den:

. Batetik, Diputazioak bakarrik dakielako zer egon den kontu honen guztiaren azpitik.

. Bigarrenik, zergatik hartu da erabaki hau orain eta ez bere garaian, hots, zergatik ez ziguten erantzun hau eman gainontzeko egitasmoei egokitutako dirulaguntzaren berri idatziz eman zutenean (2000ko uztailaren 20ko gutuna-EUSKARAREN SUSTAPENERAKO JARDUEREN GARAPENERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA)?

. Zergatik esan ziguten uztailan bertan ukatua geneukala dirulaguntza?

. Zergatik esan zitzaigun erabakia hartua zela uztailan aldizkarian Gasteizko preso ohi bati egindako elkarriketagagik (modu ez ofizialean)?

. Zergatik Diputazioko iturriek gero prentsan elka-

Laguntzak erabaki gabe dituela erantzun dio Aldundiak 'Geu'-ri

Pedro Sancristovalek hiru minutuko bilera eskaini zion atzo

Las Karlos Gorteak - Gasteiz

Argitalpenetzako diru laguntzaren gainean oraindik ez duela erabaki esan die Pedro Sancristovalek Geu-ko arduradunei. «Erabakia euskararen onerako izango da», erantzun die Arabako Kultura eta Euskara diputatuak atzo egindako hiru minutuko bileran.

zuen egin Diputazioko informazio iturriek hedabide honi adierazitako arrazoiak, publizitatearen nahikoa diru ematen ari zaiola, alegia.

'Geu' erabakiaren zain

rrizketarena ukatu eta esan subentzioa ukatu zaigula irizpide teknikoak direla medio (Iturri hauen arabera: Geu aldizkariak urte osoko publizitate kontratu bat duela, zeinaren bidez hiruhileko bakoitzean kasik 300.000 pezeta ordaintzen diguten..., orotara subentzioa ordezkatzeko duena..., Geu aldizkariari tratua ona ematen zaiola gehituz...)? Hau ukatu behar izan genuen kontratu hau ez delako existitzen.

. Zergatik Kultur diputatua den Pedro de Sancristovalek irailaren 22an izandako bileran ukatu zigun dena, subentzioa ukatua genuenik ere?

. OSO BIDE LUZEA ETA OZTOPOZ BETERIKOA HONAINO IRISTEKO.

Eta hemendik aurrera espero dugun bakarria euskararen erabilaren normalkuntza helburu duen Geu aldizkariari merezi duen tratua ematea, eta are gehiago kontuan hartzen bada Araba osoan euskara hutsez argitaratzen den hilabetekari bakarria dela. Hurrengo urtean berriro gauza bera ez gertatzea nahi genuke, kasu honetan Araba osorako garrantzitsua oso den kultur proiektua oztopatu baino ez dutelako egin. Azkenik ere, azpimarratu behar da emandako dirulaguntza ere ez dela altua (ADIBIDE DESBERDINAK: Teatro Paraiso: 10.000.000 pezeta-Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara: 4.000.000-Euskaltzaindia: 10.099.452-Arte Sakaratuko Museoa: 10.000.000-Geu aldizkaria: 709.000 pezeta).

*2000. URTEAN DIPUTAZIOAK GEU ALDIZKARIAN JARRITAKO PUBLIZITATEA: 364.000 PTS.

GEU ELKARTEA ETA GEU ALDIZKARIAREN ORDEZKARIAK

Gasteiz, 2000ko urriak 6

Geu dice que sólo recibió 364.000 pesetas en publicidad foral

N. A. VITORIA

III ZUCU,

■ 'Geu' aldizkariaren ale berezia plazaratuko da 'GEU' aldizkariako arduradunek aditzera eman dutenez, ale berezia argitaratuko dute laster batean. Izan ere, harpidedunei iragarri diete, urriko alea plazaratu beharrean, urria eta azaroari dagokion ale berezia egingo dutela. Arabako Foru Aldundiaren diru laguntzarekin izandako gorabeherak eragin dute planak aldatu beharra.

***Edizio hau itxi orduko oraindik ez geneukan Diputazioaren azken erabakiaren jakinarazpen zuzenik.**

URRIKO ALEA GORA URRIKO ALEA BEHERA

Buelta asko eman ditugu urriko alearekin... Zein ale mota atera, nola garatu gaia..., gaia oso konplikatu zelako eta gero eta gehiago nahasten ari zen eta... Mahai gainean geneuzkan ideia batzuk baztertu eta gai honen ale monografikoa prestatzeari ekin genion, Gasteizen ezagunak diren zenbait lagunen dirulaguntza ukatzeko Diputazioaren erabakia eta honen bilakaeraren inguruko iritziak jasoz. Pentsa zenbat zorabiatu eta zoratu ditugun lagun hauek behin eta berriro deitzen "ber-egoera" "ber-berriaren" berri emateko... Gauzak horrela, irailaren 22rako (bileraren eguna) urriko alea prest genuen inprentara eramateko...

Bilera eta gero egoera beste bat zen 3. Prentsa oharrean irakurri bezala... Ekoiztutako alea ez zetorren bat egoera berri honekin eta goitik behera aldatu behar zen... Gauzak ondo aztertu ondoren egokitasunagatik ale berezi hau ateratzea erabaki genuen.

KOMUNIKABIDEEN ERANTZUNA

Euskal Herriko Egunkaria
gara

La revista "Geu" critica la decisión de Diputación de retirar la ayuda que recibía

EH denuncia la actitud del Consejo Asesor del Euskera con la revista GEU

D. Mangana

'Geu' aldizkariari iazko laguntza berdina ematea deliberatu du Arabako Aldundiak

Erabaki hori hartu du Eus

Esan behar dugu oso desberdina izan dela bertako komunikabideek arazo honen inguruan egindako jarraipena:

Egunkariei dagokieliarik, Euskaldunon Egunkariak eta Garak oso segimendu sakona eta egokia eman diote gaiari. Deia-k laburki atera du, baina izan den legez atera du. El Correo ere atera du hirutan labur, baina atera du (ondo, bakarrik azkena ez dela zuzena izan, esaten baitu milio t'erdi eskuratuko duela aldizkariak eta 709.000 dira jasoko ditugunak) eta El Periódico de Alavak ez du guk bidalitako prentsa oharretan (4 izan dira orotara, iraila eta urria bitartean) oinarritutako EZER argitaratu, soilik urriaren 6an Diputazioak igorritako prentsa oharrean oinarritutako notizia txiki bat, eta gainera txarto, orotara aldizkariak milio t'erdi jasoko duela subentzio gisa aipatzen baitu... Eskerrak Periódico de Alava ("Arabako Egunkaria") deritzan, bestela... Azkenik, El Mundo eta El País-entzat, existituko ez baikin... Argia astekaria ere erne ibili da. Eta irratiei dagokieliarik: Hala Bedi, primeran!, eta Gasteiz Irratia, ondo, baita Bilbo Hiria Irratia ere. Mila esker, beraz, egia eta kontua gertatu legez jakinarazten lagundu diguzuenei!!!

GASTEIZ. La revista GEU contará, finalmente, con más de 700.000 pesetas de subvención de la Diputación de Euzkadi...

Arabaki gabe dituela Aldundiak 'Geu'-ri

Para financia el grupo abertzale, se...

DEIA
Diario de Euzkadi

Geu dice que sólo recibió 364.000 pesetas en publicidad foral

N. A. VITORIA

La revista Geu (Gasteiz) ase...

...da

...man dutenez, ale
...n ere, harpidedu-
...arrean, urria eta
...la. Arabako Foru
...gorabeherek era-

'Geu'-k uste du Di
diola preso ohi ba
Iturri ez ofizialetik jakin duenez, P

Geu aldizkari euskaldunak Arabako Diputazioari informazio iturri ez ofizialetatik jakin du iragan uztailan plazaratutako...

Egunk

«Geu ez da desagertuko, baina atzera egingo du»

Euskara hutsaz egiten den hilaletakari bakarra da Geu (Gasteizko Euskaldunak) aldizkaria. Beraz, erakusketarako dirua ukatu egin ziguten. Horretarako arrazoiak eman

tik ordaintzeko" entzun genuen. Eta horri zer deritzozue? Horten aurrean, gure hausnart-

GASTEIZ

Saneristóval no precisa en qué consistían las «dudas» para subvencionar a «Geu»

El diputado foral aludió a «razones administrativas» ante las preguntas hechas por EH

las preguntas formuladas desde EH inicial decisión de retirar y la pos-

tado foral de Cultura, Pedro Saneristóval, reconoció ayer haber tenido «dudas» respecto de la conveniencia de aportar dinero público a esta publicación, si bien aludió

aclarar en qué se concretaron las mismas. Saneristóval manifestó, además, que el departamento que dirige otorga las subvenciones de manera «subjektiva».

Cultura, Pedro

comparció ayer

EL CORREO ESPAÑOL
EL PUEBLO VASCO

EL CORREO

IRITZIZ IRITZI

GEU aldizkariak eragile politiko, sozial eta kulturalengana jo du azken hilabeteotan, abuztutik hona, Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzen inguruan duten iritziaz galdetzeko. Egoerak izan dituen aldaketak eta ezusteak kontutan hartuta, behin baino gehiagotan deitu eta itaundu behar izan diegu, erantzuna emateko orduan datu guztiak izan zitzaizkion: Gasteizko preso ohi bati egindako elkarrizketa zela eta ez genuela dirulaguntzarik jasoko eta ea zer iruditzen zitzaizkion; ondoren, "irizpide teknikoak" zirela medio hartu zutela erabakia...; gero, ezetz, arazorik ez zegoela, argitalpenentzako diru partida erabaki gabe zutela oraindik eta GEU aldizkariari dirua emango ziotela, eta ea zer pentsatzen zuten; eta, azkenik, 709.000 pezetako dirulaguntza jasoko dugula eta ea prozesu guztiari buruzko iritzia emango ziguten, mesedez.

Bakoitzak lan egiten duen arlotik begiratuta bere iritzia eman du, baina guztiak puntu batean ados jarri dira: Gaur egungo Araban erakundeek laguntza eta sostengu handiagoa eman beharko liokete GEU aldizkariari, "euskara hutsezko produktu bakarrenetakoa eta interesgarria" den aldetik.

Guztiei emandako arreta, laguntza eta elkartasuna eskertzen diegu.

ELOI BEATO

Aktorea, Gidoigilea eta Zuzendaria:

"Foru Aldundiak hartutako erabakian atzera jo duelako poztu egiten naiz", azaldu du Beatok, aldizkariak zituen zailtasunen berri izan zuenetik arazoaren bilakaera komunikabideetatik jarraitu duela aitortu eta gero. GEU Gasteizko euskara hutsezko aldizkari bakarra dela gogoratu du aktoreak, eta "horregatik bakarrik trabak jarri beharrean ahal diren laguntza guztiak jaso beharko lituzke erakundeetatik" gehitu: "Euskara guztion ondarea baita".



dirulaguntzen zenbatekoari eusteko (kopuru horri, noski, urtean-urtean egin beharreko igoera gehitu beharko litzaioke). Merezki dutena baizik ez naiz eskatzen ari. Baina hori hainbat politikariri sinestaraztea ez da lantegi erraza izango, euskara ingelesa adina edo ingelesa baino gutxiago baloratzen dutela kontuan hartuta".

JOSE VICENTE COS

Arabako Batzar Nagusietako IU-EBko kidea:

Jose Vicente Cos-en iritziz, PP Arabako Foru Aldundira iritisi zenetik euskararen kontrako eraso somatu ahal izan zen: "Euskararen gaiari PPrentz fultroa jartzen diote, eta hori ez da, inolaz ere, egokiena". EBk -EHk ere- Pedro Sancristoval, Arabako Kultura diputatuari galdera egin zion aurreko urriaren 9ko Osoko Bilkuran. EBk Sancristovalek emandako datuak zuzendu eta zehaztu zituen eta "Diputatu Jaunari GEU aldizkari serioa dela gogoratu genion; berak ere serioa izan behar du, beraz. Dirulaguntzaren arazoan atzera egiteak oso ondo iruditzen zaigula jakinarazi genion". EBk argitalpen politikaren inguruko datuak eskatu zizkion Sancristovali, "azkenean dirulaguntza emateko orduan izan duten irizpide bakarra presioa izan dela ematen duelako".



XABIER UGALDE

Arabako AEKko arduraduna:

Xabier Ugalderekin iritziz, GEU aldizkariaren dirulaguntzarekin gertatutakoak agerian utzi du Arabako Foru Aldundiak ez duela euskararekiko politika zehaztu: "Aldundian dauden eperako, legengintzaldirako, euskararekiko eta euskal kulturarekiko izango dute politika definitu beharko zuten, beste gaiekin egiten den bezala". AEKko arduradunak "lotsagarritzat" jo du "dirulaguntzak iritsiko ote diren zain egon" behar izateak eta "GEU aldizkariarekin gertatu dena ezin dela berririo gertatu" aldarrikatu du.



INAXIO LOPEZ DE ARANA

Itzultzailea. GEUko harpideduna eta kolaboratzaile ohia:

"Berrikitan jakin dut nolabaiteko dirulaguntza jasoko duela Geu Gasteiz aldizkariak. Hori, inondik ere, pozgarria da. Baina egoerak pixkat hoherantz egin badu ere, ezin da inola ere esan Geu Gasteiz aldizkariak gehiagorik merezi ez duenik. Ez dut dudarik egiten, bestalde, Geu Gasteizko lagunok oraindik lan asko egin beharko dutela atzerapausorik ez egiteko eta lehengo urteetako



IZASKUN REKALDE

Gasteizko IKAKo arduraduna:

"GEU herri aldizkaria da, euskaraz idazten dena eta Gasteizko eta Arabako jendeari zabalik dagoena", gogoratu dute IKAtik, "bere orrialdeetan Gasteizen bizi den jendearen arazoak, itxaropenak, pozak eta abarrekioak islatzen dira. GEU aldizkaria, gaur egun, hemengo lagun askorentzat behar-beharrezkoa da betetzen duen funtzioagatik". IKAKo taldeak "pozgarritzat" jo du GEUk azkenean dirulaguntza jasotzea.



Kultur Saileko aurtengo diru banaketaren adibide desberdinak:

- Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara: 4.000.000
- Teatro Paraiso: 10.000.000
- Euskaltzaindia: 10.099.452
- Arte Sakratuko Museoa: 10.000.000
- Eta abar...

Urriaren 9ko Biltzar Nagusietako Osoko Bilkura: Bertan EBk eta EHk Geu aldizkariarekin gertatutakoaren inguruan galdetzean Pedro de Sancristoval Kultur diputatuak emandako erantzunetako bat: "Nuestro departamento cuenta con una partida presupuestaria de subvenciones de 26 millones de pesetas y las repartimos de manera subjetiva, en la medida que somos sujetos".

**AURTENGO UDAZKENEKO
LEHEN KONTZERTUA GOGOAN:**

TXUMA MURUGARREN

"Nire leihoak" diskoa aurkeztu zigun irailaren 28an Parral tabernan. Aukera ona kantautore berri honen lana ezagutzen joateko...

Txuma Murugarren (pop-rock) Sasoi Ilunak taldeko abeslariaren bakarkako proiektua da hau. Aurretik egin duen ibilbide luzeari 1984an eman zion hasiera "Viuda de Lopez" taldearekin, gero 1988an "Ttak Ahula", eta "Sasoi Ilunak" taldea ondoren, 1990ean. Sasoi Ilunak taldearekin hiru disko eder utzi dizkigu: 1991ean "Sasoi ilunak", 1993an "Herri xumeak" eta 1998an "Arakina". Urte hauetan aritu den taldeetan bizkarezurra izan da Txuma Murugarren, bizitzaren eta beronen inguruko kaosaren arteko harreman estua eta finkoa.



Orain beste apaindura batekin dator. "Nire leihoak" da bere azken diskoaren izena. Lan honetan kantuak ahots garratzez ari zaizkigu etengabe, sentiberatasun karga itzelarekin. Pop-aren alaitasuna eta kantautoreen sakontasuna batzen dira. Sentimenduak lurreratzen ditu desamodioaren jantzi gardenarekin. Pop minimalistak batzuetan Dylanismoa gertu duela. Melodia eta hitza. Taldea

Txuma Murugarren: ahots nagusia eta gitarra akustikoa.
Musikari 1: gitarra elektriko.
Musikari 2: pianoa eta hammond-a.

***ETA URRIAREN 31N, ASTEARTEA,
ILUNTZEKO 20:00ETAN PARRAL-EN:**

Petti

Berako abeslariak badu jada lan bat kalean "amets bat" Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin. Letren indarra eta kantaera intimista dira bere ezaugarriak.

Taldea. Petti: ahotsa eta gitarra.

Musikari 1: gitarra.

Musikari 2: bateria.



OIHUKA DISKETXEA
PORTUETXE KALEA, 88 BIS
DONOSTIA 20018
GIPTel: 943 310 267
Oihuka@oihuka.com
www.Oihuka.com



GAZTELUPEKO HOTSAK.
Gaztelupeko@hotsak.com
Tel.: 943 753016

GEUREKIN MENDIRA

**ZATOZ GEUREKIN
MENDIRA!**

MOTA ETA KUETO

Irteera:

Gasteiztik, txapela tabernatik
goizeko zortzi t'erdietan

Kotxea baldin baduzu, eraman

Eguna:

2000-11-26, IGANDEA



Informazio gehiago: 945-200973

**Ibilaldien egitaraua
2000-2001 denboraldia.**

IRAUPENA	DATA	NONDIK-NORA
GOIZEKOA.	URRIAREN 22an.	ATXULEI BEGIA-LEKANDA
GOIZEKOA.	AZAROAREN 26an.	MOTA-CUETO
EGUN OSOKOA.	ABENDUAREN 17an.	BERIAIN.
EGUN OSOKOA.	URTARRILAREN 21ean.	GAZTELU-TXURREGI.
GOIZEKOA.	OTSAILAREN 18an.	MANTXIBIO-SOILA.
EGUN OSOKOA.	MARTXOAREN 11an.	LEUNGANA-URTEMONDO.
GOIZEKOA.	APIRILAREN 8an.	SAN TIRSO.
GOIZEKOA.	MAIATZAREN 20an.	ALOINA-ARKAITZ.
GOIZEKOA.	EKAINAREN 17an.	ARBARAIN

Oharrak:

* Gerta liteke antolatzaileek egitarauan aldaketaren bat egitea. Horregatik komeni da ibilaldiaren xehetasunak baieztatzea, GEU GASTÉIZ aldizkarian begiratu edo aurreko astean deituz GEUren egoitzara: 945 222153.

* Aldizkarian besterik zehazten ez den bitartean, irteerak Prado kaleko Txapela tabernaren aurrean izango dira, goizeko 8.30etan.

* Bestalde Bagare eta Euskaraz Bizi taldekoekin elkarturik, beste hiru ateraldi prestatu ditugu (xehetasunak GEUn):

BI EGUNEKOA AZAROAREN 19an. PICOS DE URBION.
EGUNA + BAZKARIA. OTSAILAREN 25ean. URKIOLA-ARAMAIO.
EGUN OSOKOA. MAIATZAREN 6an. GAROBEL SERRA.

GEU, GASTEIZ EUSKALDUNA

Pedro Asua, 2-3.a- 01008 Gasteiz/ Tfnoa-Faxa 945 222153/

E-posta: geugaste@grn.es

AZUL



JATORRIZKO BERTSIOAN

Bederatzi hilabete itxita egon eta gero, Azul Zinemak dituen bi aretoek atak zabaldu zituzten ekainean, baina oraingoan Patxo Sansen ekimenez. Aitzitik, ez da ohiko zinema ikusten areto hauetan, izan ere jatorrizko bertsioan dauden pelikulak baino ez dituzte eskaintzen Azulen. Gisa honetako pelikulak ikustera doazenak asko ez diren arren, Sansek dio Gasteizko zinezaleen erreferente izatea erdietsi duela.

Z
I
N
E
M
A

Erresuma Batuan lanean ibili eta gero, ideia garbi batekin itzuli zen Patxo Sans Sampietro Gasteizera. “Halako gune bat sortzeko ideiarekin bueltatu nintzen, eta Gasteizen zineman dabilztan enpresei eskaintzeko asmoa neukan. Gero, ordea, Azul Zinema alokatzeko aukera ikusita ez nuen zalantzarik izan. Zertarako lan egin beste batentzat zure nagusia izan bazaitezke?”. Eta halaxe egin zuen, pentsatu eta burutu. Ekainean ireki zituen ateak Azul Zinema berriak, Gasteizen jatorrizko bertsioko pelikulak eskaintzen dituen zine areto bakarra, hain zuzen ere.

Patxok ez du orain arte zinemaren munduan jardun,

baina halako esperientziak beste toki batzuetan ikusi ditu eta Gasteizera ongi egoki daitezkeela uste du. “Italian egon nintzen ikasten, Parman, eta Alemaniako Münster hirian uda batzuk igaro ditut. Hiri horiek eta Gasteiz oso antzekoak dira, eta bietan hemen baino eskaintza kultural interesgarriagoak zeuden”. Bartzelonako esperientziak ere ezagutu ditu, eta horiek Arabako hiriburura moldatzeko parada dagoela deritzo Sansek.

Bilbo eta Donostia bezalako hirietan antzeko ekime-
nek porrot egin izanak ez du Patxo Sans izutzen. Berak
esaten digunez, “Donostiak zinemaldia du, eta horrekin



IZEN-ABIZENAK: Patxo Sans

JAIO TERRIA: Bartzelona

JAIO TEGUNA: 1971-4-21

HOBBIAK: Bizikletaz ibiltzea.

Bizikleteroak elkarteko kidea da

PELIKULARIK GUSTUKOENA:

“Caro diario”, Nanni Moretti-nena

PELIKULARIK TXARRENA: “El profesor chiflado 2”

IKUSI DUZUN AZKEN FILMA: “La Comunidad”

AKTORERIK GUSTUKOENAK: Gerard Depardieu eta Roman Polanski

EMAKUMEZKO AKTORERIK GUSTUKOENAK: Penelope Cruz (bere ahotsa gehienbat) eta Juliette Binoche

ZUZENDARIRIK GUSTUKOENAK: Woody Allen eta Julio Medem

JATORRIZKO BERTSIOAN EMATEA GUSTATUKO LITZAIZUKEEN FILMA: “El Submarino (Das Boot)” (dagoeneko botata)

pozik bizi dira. Bilbo, berriz, oso zabala da, eta halako ekimen bat garatzeko aukera asko zailtzen da. Gasteiz, ordea, oso hiri egokia da horrelako proiektu bat abian jartzeko”.

NEGOZIOA EGITEKO ASMORIK EZ

Ez da zine komertziala eta, hortaz, bere asmoa ez da aberats bihurtzea. Halako filosofia du Sansek. Berak jakin badaki edozein zine areto komertzialek duen bezero mota ez doala bere zine aretora, eta jende gutxi joateak alde horretatik, alegia, negozio aldetik, desabantaila hori duela. Baina sekula ez du buruan izan negozio handi bat egitea proiektu honekin, eta pozik dago erantzunarekin.





“Bezeroen masa kritikoa lortu dugu, oso bezero finak ditugu, elkar ezagutzen dugu eta ez digute sekula huts egiten”

Edozein zine aretok, gure hiriburukoek bederen, duten salneurri bera du Azul Zinemak. Hots, 750 peze-ta. “Ezin dut sarrera merkeago ezta garestiago ere jarri. Merkeago jartzen badut jendeak uste izango du pelikulek ez dutela merezi eta ez da ia inor etorriko. Garestiago jartzen baldin badut, aldiz, harropuzkeria egotziko didate eta boikoteatuko naute. Hortaz, egokiena salneurri bera jartzea da”.

BEZERO FINAK

Hiriaren izaera ez da arazoa Patxorentzat. Nahiz eta zinema areto asko irekitzeko asmoa dagoen Gasteizen, hori ez da oztopoa izango Azulentzat. Izan ere, bere egitasmoak ez du zerikusirik zine komertzialarekin. “Gutziz ezberdina da. Bezeroen masa kritikoa lortu dugu, oso bezero finak ditugu, elkar ezagutzen dugu eta ez digute sekula huts egiten”.

Bezero diferenteak dituela azpimarratzen du, zinema oso gustuko dutenak, baina bikoiztutako pelikulak ikusi baino bere jatorrizko hizkuntzan entzutea gehiago atsegin dutenak dira. “Gurea ez da igandean beste zereginik ez duen jendearentzat, zinemara

askotan doan pertsonarentzat baizik. Nahi duena zer den badakien bezeroa da Azul zinemak duena”, azaltzen digu Patxok.

Bezeraok fidelak izateak abantaila asko dituela diosku Sansek. Bezerao laguna egin dela aitortzen digu, beraiekin pelikulez hitz egin eta solasaldi interesgarri franko izaten dituela adierazten du. Gainera, bezero horiek astean behin baino gehiagotan joan ohi direla zinemara esaten digu. Izan ere, hamar saiotarako bonoak hartzeko aukera ematen du Azulek, eta horrela, astean egoten diren estreinaldi guztietara joaten dira, “bat ere utzi gabe”.

Sansen helburuen artean zinema Gasteizko “erreferente kultural” bihurtzea da, eta horregatik arte eta entseiuko filmen aldeko apustua egin du. Europako zinema independentea eta asiar zein afrikarraren aldeko ekimena dela azpimarratzen du. Orokorrean zinea arte gisa ulertzen duen ororentzat zuzenduta dago Azuleko eskaintza, “Hollywooden etengabeko bonbardaketari kontrajarrita”.

“Europako zinema independentea eta asiar zein afrikarraren aldeko ekimena da, Hollywooden etengabeko bonbardaketari kontrajarrita”



1) Zer iritzi duzu Azul Zinemaren ekimenaren gainean?

JON REJADO

BEGIRALEA- 23 URTE

1) Oso ongi iruditzen zait, dena dela, denbora gutxi barru Araban irekiko diren zine aretoak direla eta ez dakit zenbat iraungo duen horrelako ekimenak. Baina nire aburuz hori ekimen polita da, edo nork izan beharko luke eskubidea horrelako pelikulak ikusteko, ez bakarrik telebistan gaueko ordu txikietan.

2) Ez, ez naiz sekula egon. Baina telebistan noizbait grabatu dut goizeko bostetan botatako baten bat. Zinema ikusteko beste modu bat da.

CRISTINA PUEYES

ITZULTZAILEA- 25 URTE

1) Amorrua ematen dit Azulek hau abian jarri eta Guridi eta Samaniego zinemak ere ingelesez pelikulak botatzen hasteak, konpetentzia egin nahian.

2) Bai, sei bat aldiz. Pelikula batzuk gustatu zaizkit, beste batzuk ez horrenbeste.

2) Egon al zara Azul Zineman?

IVAN SANTAMARIA

KAZETARIA- 23 URTE.

1) Oso ondo iruditzen zait, batez ere Madrilen eta Bartzelonan kenduta, ez delako Estatuko beste inon horrelako zinemarik aurkitzen. Halako pelikulak gustuko dituenak eskubide osoa dauka ikusteko.

2) Ez, ez naiz egon. Baina ez litzaida-ke axolako noizbait joatea.

MONTXO LOPEZ DE IPIÑA-

MARRAZKILARIA- 30 URTE

1) Ondo deritzot. Nik ez ditut gustuko gisa horretako filmak, baina gustuko dituenarentzat ondo dago. Baina, hala ere, astuna iruditzen zait denbora guztian egotea elkarrizketak irakurtzen.

2) Ez naiz sekula Azulen egon, baina jatorrizko bertsioan dauden pelikulak ikusi ditut. Dena den, nahiago ditut bizkoiztuta daudenak.



**EZ DU BALIORIK
GALTZEN**


**ASTEKO EDOZEIN
E G U N E T A N
ERABILGARRIA
(JAI EGUNAK BARNE)**

10 SAIOTARAKO BONUA

BONU HAU PREZIO TXIKIKO 10 SARRERARENGATIK TRUKA DAITEKE 6.500 PTA.

ZALDIARAN PLAZA, 7 • GASTEIZ

Txeroki: Aldundia vs Geu





IRAULTZA BULTZATZEKO...

*** HARPIDEDUNA IZAN! ***

HARPIDEDUNAK EGIN!!



IRABAZIKO DUGU?

**ZURE
ESKUETAN
DAGO!**

IRASOLA

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutzi), 27
Tfno: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



OIKOA!

arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

RAFA TEJA ATELIER



*"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuiz margotuak"*

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maetz, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004



**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

**MIKEL
DELIKA**



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

KOZKORTUZ



Mugikaria



✦ **Helburuak:** ✓ Etxean erraz aurkitu dezakegun materialari beste erabilera bat ematea.

✓ Irudimena landu irudi ezberdinen konbinazioa eginez.

✓ Eta noski ... ONDO PASATU !!!

✦ **Adina:** 4-9 urte.

Materiala: Kartulina, guraizeak, arkatza, haria, pajitak eta zeloak.

PAUSOAK:

- Kartulinetan nahi dituzun marrazkiak margotu. Hauek gero gure mobilerako moztuko ditugu
- Hariak pajiten artean pasa itzazu, bi aldeetatik luzera nahikoa utziz. Ondoren hiru pajitak lotu, erditik, izar baten moduan
- Orain itsatsi zure marrazkiak zintzilik dauden harien puntetan

BADAGO PREST GURE MUGIKARIA!!!



PLISTI-PLASTA



ASTI LIBREA **EUSKARAZ!!!**
TELEFONOA: 656739030

KILI eta KO



**ARGITALETXE
EGIL**

TXABI ARNAL, ARANTZA IBAR

Ibaizabal argitaletxeak Kili eta Kolo proiektua zuzendutako material praktikoa dugu. Lan eta jolas guraso eta irakasleentzat gida bat gehitzen du.

Umeentzat sei koaderno handi eta erakargarri da. Haizea, Lehen egunak. Koaderno bakoitzak paperez umeen irudimena landu, oharmena hobetu eta aditasuna.

Materialaren artean oso zerrenda luze eta egozgarriak aplikatzen dituzte, collage-ak, arte-laminak, hain handia izanik umeak erraz aurkituko du jolas gida errazten die. Hau dena argitzeko, jarraian materiala.

Materiala: Ipuinak, gehigarriak, nire gurasoentzako gida, jolasen koadernoak, irakasleentzako gida, abestien kaseta, maleta.



3. JOLASA

Hemen fitxa ezberdinekin topatzen gara. Fitxak ebaki eta gero umeen betebeharrak irudi berberak elkartzea da (moztutako fitxak irudi berberak dituen orrian kokatuz). Horrela umeen aditasuna, oharpena eta sumaketa lantzen dira.



4. JOLASA

Kiribil hau ikustean zer egingo zenuke? Hatzamar batekin bihurtzeko joan, edo tartea margotu... Ume bakoitzak bere irudimen edo joeraren arabera aukeraren bat izango du eta gogo gehiago sortarazten dionari helduko dio.

**JOLAS
BARRA
AURKITUKO
BESTELAKO**

Xiri eta Miri munstroen forma somaketa eta oharritasuna: nahiago itxuraz margotzeko gogoak arabera margotzeko Gustuko irudiak bakoitzaren finkatzeko Irudiak bete eta anitzeko jolas lantzeko eta eta nahi du ikusteko

LO proiektua

EA: IBAIZABAL
LEAK:
ERRA ETA MONTSEERRAT MEANO

argitaratu egin du. 2 eta 3 urte bitarteko umeei
materiala oso zabala da, umeentzat pentsatua, eta

daude: Uhauuu!, Jostailuak, Eguzkia, Lagunak gara,
ezko jolas ezberdinak dakartza, honako helburuekin:
asuna mantendu.

okitua aurki dezakegu: jolasteko era desberdinak
k, argazkiak, irudiak... Beraz, materialen aniztasuna
gustukoena eta guraso eta irakasleei lan aukeraketa
laren artean ateratako jolas batzuk azalduko ditugu:



Salneurria: Material osoa (Irakasleentzako gida, Hormirudiak, maleta...): 18.000 pta. Umearena (Ipuinak, koadernoak, zinta, maleta): 5.000 pta

6. JOLASA:

ARGAZKI IRADOKITZAILEA
Honetan umeari galdetu behar zaio zer ikusten duen irudian. Beraz, bere irudimena garatzeko baliabide zuzena dugu. Helburua umeak jolas baten aurrean zer-nolako sumaketa duen aztertzea da.



8. JOLASA

Irudi hauek mobil bat osatzeko piezak dira. Jolasa etxera eramateko prestatuta dago eta familiarterako harremana bultzatzeko bideak finkatu nahi ditu. Honela, familia artean egiteko jolasek duten garrantzia eta elkarlanerako joera bultzatzen da.



SETAN
RENA
KO DITUGUN
O AUKERAK:

sorginak eta
esta: abilezia,
harpena lantzeko.
duten kolorez eta
ko, ume bakoitzaren
eta nahien
razkia betez.
en aukeraketa:
n nortasuna
ko aukera.
tzea: amaiera
asa, sormena
haurren joera
desberdinak
o parada.



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXA), 23

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (Kutxa) kalean

BAR
KLAKE

KUTXA, 2
TFN.
143883



MERKURIO-KADMIOMAN
%0a
CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK
CEGASA
INTERNATIONAL
ALKALINA



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA



IRAGAR ZAITEZ
GEU aldizkarian

Tfnoa. 945 22 21 53

EUSKALDUNON GIDA 2000-2001

- Euskaldunez osaturiko elkarte, profesional, eta enpresen zerrenda
- Gure gida euskaraz bizi nahi dutenei zuzendurik dago
- Gaur egun berau dugu euskaldunen datu-baserik handiena
25.000 fitxarekin, 750 arlotik gora
- Aurtengo berrikuntza garrantzitsua: Gida urdina,
- EuskalHerrikoherri guztietako eta hiriburu eta herri
handietako kaleen Posta Kodeak
- Egitura eta atalak: Gida zuria (herriakoa), Gida horia (arlokakoa)
eta Gida urdina (posta kodeena).
- Aurten ere Gida osoa Interneten: WWW.euskaldunongida.net

Informazioa: Artez Euskara Zerbitzua. Luzarra kalea 10-2. Deustua 48014
artez@euskalnet.net

Tfnoa. 944 480 000

EUSKALDUNON

GIDA
eta Posta Kodeak



- 27.700 euskaldun zure zerbitzura
- 825 jarbuerak
- 400 udalerri
- 2.100 helbide elektroniko
- Internetekin lotura zuzena
- Euskal Herri osoko posta kodeak

Mari Carmen Perez de Albenizek poztasun osoz jaso zuen Ordizian irailean irabazitako saria: "Guretzako horrelako sariak oso garrantzitsuak dira eta bereziki hau ilusio gehien eman didana da". Lautadako Munain herrian bera eta bere familia lan eta lan aritzen dira urte osoan zehar Arabako gaztagintzaren maila zein altua den erakutsiz. Mari Carmen "gauzak aldatzen ez badira" laster desagertuko den lanbide honen azkenengo erakusleetako bat da.

Gazta kontuetan,

Araba garaile



FITXA TEKNIKOA

- Gabirian jaio bazen ere Munainen ditu bizileku eta lantokia.
- Bere gaztek sari anitz jaso dituzte dagoeneko:
 - 1984an bere lehenengoa lortu ostean, Arabakoa, Euskadiko txapelketa, Gernikakoa, Villafrancakoa, Santo Tomas egunekoa edota Elgoibarko San Andres eguneko sariak baditu bere etxeko apaletan. Mari Carmen orotara 15 edo 20 sari izategatik kontent da.
- Mari Carmen oso ados ez dagoen arren semeetako bat familiaren ohiturari jarraitzeko asmotan da.

*"Duela hogeit urte
arkumea orain
baino garestiago
saltzen genuen,
baina urteak
aurrera joan
ahala gure lana
gero eta gutxiago
baloratzen dela
uste dut"*

- NOLA HASI ZINEN GAZTAGINTZAN?

- Gurea tradiziozko kontua da. Urte asko eta asko daramatzagu ardiak zaindu eta gaztak egiten. Gure birraitona izan zen gaztagintzan hasi zena; hiru belaunaldi badaramatzagu honetan, beraz. Hala ere, orain Munainen bizi naizen arren, Perez de Albeniztarak Andoin herritik gatoz, Andoin izan zen nire birraitonaren eta bere aurrekoen jaioterria eta hortxe egin ziren gure lehenengo gaztak.

- ETA HIRU BELAUNALDITAN ZEHAR NOLA ALDATU DA ESNETIK GAZTARA PASATZEKO PROZESUA?

- Prozesua bera ez da aldatu, bere horretan dirau. Aldaketarik nabarmenenak

eta garrantzitsuenak gaztagintzarako erabiltzen ditugun materialetan daude. Garapena, gainera, aldi desberdinetan eman da. Gure birraitonaren garaian erabiltzen ziren ontzi



eta tresna guztiak garaiko lehengai ugarienaz eginda zeuden, hau da, egurrez. Gazta lortzeko esnea *txurka* izeneko ontzi batean jartzen zen eta irabiatzekoak *malatxa* izena zeukan. Ondoren, txapazko *kaiku* eta moldeak etorri ziren eta gaur egun dauzkagun ontziak plastikozkoak eta altzaruzkoak dira gehienbat. Baina, egia esanda, prozesua muinean bera den arren, formak ere aldatu egin dira. Orain, eraitsi

ostean, esnea iragazki askotatik pasatzen da eta lehen inbutu batetik zehar besterik ez genuen pasatzen. Inbutuaren barruan asunak jartzen genituen esnea garbitzeko, pentsa hori non geratu den...

Gazta berdina, material berriak

- NOLA EGITEN DA GAZTA?

- Ez da prozesu zaila baina bai luzea eta urrats guztiak ondo zaindu behar dira. Lehendabizi, noski, ardia eraisten da esnea lortzeko. Eta esne hori garbirik dagoenean, 28-30ºtan berotu egiten da ondoren gatzagia botaz. Guk gatzagi naturala erabiltzen dugu eta ordu erdi-ordubete inguru izaten dugu gatzatzen den arte. Hori eginda gatzatua *liran* irabiatu eta *palaz* jasotzen da, ostean moldean jartzeko. Ondo prentsatu ondoren gazta gehitzen zaio eta, azkenik, heltze-puntu egokia izan arte itxarotea besterik ez da falta. Gutxienez bi hilabete behar dira bere puntuan egoteko... Ez dago beste sekreturik.

- SEKRETURIK EZ DAGOELA DIOZU, BAINA ZUEN GAZTAK ZERBAIT BEREZIA IZAN BEHARKO DU, EZTA?

- Ez dakit, zerbaiz izango du, baina kontatu dizudan bezala

*Mari Carmen
"gauzak aldatzen ez badira"
laster desagertuko den lanbide honen azkenengo erakusleetako bat da*



egiten dugu, hor ez dago ezkutatzeko ezertxo ere ez. Bereziki oso ondo zaintzen dugun garrantzi handiko gaia garbitasunarena da, esnea oso traidorea da eta arreta handiz ibili behar da harekin. Bestela, irabaztearena zorte kontua izan dela uste dut.

- ZER-NOLAKO ERAGINA DU ARDIEN ELIKADURAK ZUEN PRODUKTUETAN?

- Garrantzia? Osoa. Begira, artzain batek produktu ona eta kalitatezkoa jaso nahi baldin badu badaki lehenengo gauza abereei ondo jaten ematea dela, akabo bestela. Gure ardiek elikagai naturalak baino ez dituzte hartzen: belarra, oloa, artoa, garagarra, alpapa eta ilarrak; hori besterik ez.

- NOLAKOA DA IRABAZLE SUERTATU DEN GAZTA BEREZI HORI?

- Normalean zapore naturaleko gaztak egiten ditugu, baina Ordiziako txapelketara zertxobait aldatzeagatik keztatu bat eramán nuen eta begira!!

Desagertze bidean

- ZER-NOLAKO ESANAHIA IZATEN DUTE ZUENTZAT ORDIZIAKOA BEZA-

LAKO SARIEK?

- Oso garrantzitsuak dira, sari guztiek aurrera eta gaztagintzan jarraitzeko gogoia ematen dute, horrelako onespenei garrantzi handia dute ardiei bizi garenontzat, oso bizimodu gogorra delako.

- ARTZANTZAREN GOGORTASUNAZ ARI ZARELA, NOLAKOA IZAN OHI DA MARI CARMENEN EGUN BAT?

- Goizeko sei eta erdietan altxatzen gara eraisten hasteko eta egun osoan zehar ez dago ardiak ez diren beste ezertan jarduteko astirik. Eraitsi ostean

gazta egin behar da, ondoren berriro eraitsi... lanik ez da falta. Etengabe egin behar da lan gaztagintza eta artzantzaz bakarrik bizi ahal izateko, eta gainera, gogor jardun arren, urte guztiak ez dira onak izaten. Aurten, adibidez, sei-zazpi mila ale artean egin ditugu, baina ez da oso kopuru altua. Udaberria nolakoa, halako urtea gaztarentzat. Dena dela, urtea ona ala txarra, berdin. Gure bizimoduak ez du oporrerik ezagutzen.

- LANBIDEAREN BERAREN ZAILTASUNEZ GAINERA, ZEINTZUK TRABA AURKITZEN DITUZUE?

- Trabak asko dira. Alde bate-tik, ematen diguten dirulaguntza oso urria da. Halere, hobeto legoke dirulaguntza baxuagoa izan arren, gure jeneroak balio handiagoa balu. Jendea iruditzen bazaio ere, ardi, arkume zein gaztaren salneurriak oso baxuak dira eskatzen duten lanerako. Duela hogeitau urte arkumea orain baino garestiago saltzen genuen, baina urteak aurrera joan ahala gure lana gero eta gutxiago baloratzen dela uste

***"Andoin izan
zen nire
birraitonaren
eta bere aurreko-
en jaioterria
eta hortxe egin
ziren gure lehe-
nengo gaztak"***

dut. Eta gauzek horrela jarraituz gero gure lanbidea eta bizimodua erremediorik gabe galdu egingo dira, bizitzeko adina ez baitu ematen.

Babes bila

- ZEINTZUK ESKAKIZUN EGINGO ZENITUZKE?

- Kontuan izan gaitzatela, hori besterik ez. Entziako mendizerrara leku paregabea da ar-tzantzarako, baina poterea dutenek igande pasa datozenak honetaz bizi garenak baino aintzakoagotzat hartzen dituzte. Txakurren batek ardiren bat edo bi edo hamar hil-tzen badu ez da ezer gertatzen baina, hori bai, txakurra hiltzen badiete, hor bai iskanbila! Jendea oso axolagabea da eta ez da konturatzen mendira eramandako txakur batek egin dezakeen minaz. Gure egoera ez da batere ona, ez gaituzte zaintzen. Nik Entzian aldi berean hogeita hamar artzain zeuden garaiak ezagutu ditut, gaur, berriz, ez gara hamarrera iristen. Eta horien artean hiru gazte baino ez daude. Hamar urte barru ez da artzainik geldituko Entziako mendizerran, gauzek horrela jarraituz gero ez bederen.



“Inbutuaren barruan asunak jartzen genituen esnea garbitzeko, pentsa hori non geratu den...”

- BERAZ, EZ ZENUKE GAZTE JENDEA HONETAN SARTZERA ANIMATUKO?

- Ez, inola ere ez. Pena ematen du baina hala da. Nire kasuan semeetako batek jarraituko du, hala ere.

- GORPUTZ ARGAL ETA LIRAINEN MODAN BETE-BETEAN MURGILDUTA

GAUDELA ETA, NOIZKO GAZTA GAINGABETUA?

- Gauza horiek ez lukete izan behar ere, kaka hutsa dira! Kutxetan datorren esnea esne naturala baina hobea dela esatea ere! Ni behintzat ez nator bat honekin guztiarekin, naturala dena gustatzen zait.

Z I R T E D O Z A R T

- LIBURU BAT?

Normalean ez dut irakurtzeko astirik izan ohi, baina badudanean abeltzaintza eta gure lanaren inguruko aldizkariak irakurtzen ditut.

- FILM BAT?

Ez dut ezta gogoratu ere egiten zinemara joan nintzen azkenengo aldia.

- EGIN DIZUTEN AZKEN OPARIA?

Ordiziako saria, opariririk onena gainera.

- MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

Ardiak.

- ARDO BELTZA ALA GORRIA?

Bat ere ez.

- EZTA GAZTA LAGUNTZEKO ERE?

Gaztaren zaporea dastatzeko ez da ardorik

behar.

- ZER DA ZURE ONETIK ATERATZEN ZAITUENA?

Txakurrak ardiren bat harrapatu nahian ikustekak.

- EUSKARA?

Erabat ahaztuta, tamalez. Nire etxean txikitan euskara hutsez egiten zen, Gabiriakoa naiz eta. Baina nik ez nuen ikasi. Hala ere, senarra, ama eta semeak euskaldunak ditut.

- RAMON RABANERA?

Behin txapelketa batean Munaingoa nintzela esan eta “Ah, hori Donostiatik gertu dago!” erantzun zidan...

- ALAVES?

Berdin zaizkit niri Alavesa zein Portugesa.

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER AIZPELEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

ITURRIETA

Sagardotegia



**ZATOZ UDAZKENEKO
ITURRIETAKO GIRO BERORA!**

Arraga auzoa.

tfnoa: 945 44 53 85

ARAMAIO

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

Jantzi Kioskoak



“UDALEKO OSASUN ETA KONTSUMO SAILAK
GORPUTZ BILUZIEN IRUDI-ARGAZKIAK
ERAKUSLEHIOETAN IZATEA KALTEGARRIA
DELA OHARTARAZTEN DU ”



“Moralkeria gorakada bultzatua jokatu zuten popularrek”

Maria Angeles Castellanos Alderdi Popularreko zinegotziak ez zekien bat, ehun edo milaka pertsona izan ziren kexatu zirenak kioskoetako erakuslehioetan gorputz biluziak agertzen duten argitalpenak egoteagatik... Geroago jakin zenez hiritar bakar baten kexua nahikoa izan zen saltzaileei ale horiek bertatik kenarazteko akta altxatzeko. "Nik orain iturrietatik ardoa irtetea nahi eta hurrengo egunean aterako balitz bezala", dio Kike Garciak.

Postetxe plazako prentsa saltzaile hau orain dela urtebete hasi zen beren senideek urtez izan duten negozioan, eta orain arte horrelakorik inoiz ikusita ez zuela aipatzen du harridurarekin: "Popularrek umeen defentsaren izenean aldizkari hauek zentsuratzearekin ez dute ezer egiten, gauza ez baita debekatzea baizik eta kontzien-

ru soberan izan bazituen ere Udalak egindako salaketarekin zerikusirik izango zuenik ez du uste, baina hala eta guztiz ere Kikek jakinaren gainean jarri zituen argitalpenen editoreak: "Interviú aldizkari arduradunei e-mail bat bidali nien jakin zezaten, eta jarraian telefonoz deitu ninduten... Urriko lehen asteko alean bertan agertzen naiz".

Udalak atzera egin arren Kikek zentsuratutako aldizkariak berriro erakusteko idatzizko baimena eskuratu arte bere dendan gertatutakoaz informatzen duen kartela ez du kenduko. "Gizartea, garaia eta 2.000. urtea gainean ikusi dituztenean, orduan konturatu dira egiten ari zirenaz". Hala eta guztiz ere, Kikek bere buruari galdetzen dio zer gertatuko zatekeen berak neurri honen aurrean ezer esan ez balu... "Aurrera jarraituko zuketenekin eta orduan desagertuko zen hurrengo aldizkaria zein izango ote zen?".

Titi bat, titi bi, hiru titi, lau titi... horiek prentsa salmenten erakuslehioetatik desagertarazi behar zituztela zioten lokaleko lehen orrietako tituluek...

tziatzea, eta arrazoi beragatik armak saltzen dituzten dendek ezingo lukete erakuslehiorik izan".

JARRERA BELDURTIA

"Popularrek moralkeria gorakada izan dute, eta honen atzean ezkututzen den jendea egungo egoeran bizitzen ohitu ez dena da; orain dela 40 urte bezala bizitzen jarraitzen baitute, aurrera egin ez". Gertaerak gutxi iraun badu ere Kikek gainontzeko kioskerok egun horietan izandako jarrera beldurtizat hartu du. Izan ere, gazte honen aburuz, saltzaileak haserre agertu baziren ere ahopeka egin zituzten beraien kritikak. Kike iskanbila honetan ez isiltzeaz gain, "kulebroi" honen gora-beheren berri ere eman zuen hainbat komunikabidetan. "Nik kartel bat ipini nuen kioskoan bidegabekoa zen zerbait gertatzen ari zela jakinarazteko, bai erosle zirenei bai ez zirenei".

Kiosko honetan bereziki "Man", "Interviú" eta "Penthouse" aldizkariak debekatu ziren eta beste batzuetan "Víbora" (komikia dena) zentsuratu zela aipatzen du gazteak, eta "beste saltoki batean badakit ez zietela ezer esan "Interviú" edukitzearren, areago, erakuslehioa txukun eta garbia izateagatik zoriondu zituzten". Egun horietan Kikek astero saltzen dituen Interviú-etatik bizpahi-

"BAZEN BEHIN... ZIRKO BAT"

Antza denez, ez buru ez hankarik duen iskanbila honen oinarria Adin Gutxikoak Babesteko legearen izenean gasteiztar batek aurkeztu kexua izan da. Hortik aurrera Gasteizko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko "teknikarien ekimenez" hiriburuko kiosko nahiz prentsa dendetan pornografia zelakoan debekatu zen gorputz biluziak agertzen ziren aldizkariak erakustea (emakumezkoen gorputzak kasu honetan, nagusi baitira aldizkari mota hauetan...). Egun, berriz, Alderdi Popularrak bere hanka sartzean atzera egin duela, Gasteizko prentsa eta aldizkari salmenta tokietara normaltasuna bueltan etorri da.


Pena handia lehenago aurkeztu ez izana. Nork daki Donostiako Zinemaldian urrezko kontxa eskuratzeko aukera galdu duen Gasteizko Udalak, komedia generokoen artean parekorik ez baitauka irailaren 20an Alderdi Popularrak estreinatu parodia surrealistikak.

Hiriburu araberrera bueltan nintzen udako oporrak amaitzeaz zirela. Jaioteritik hain urrun egon ondoren, eta telebista, irratia eta prentsa luzaroan kontsultatu gabe, bertan gertatutakoaren

berri jakiteaz irrikitan nengoen; beraz, informazio lanari ekinez egunkariaren orriak pasatzean titulu batek nire arre-ta bereganatu zuen bereziki: horra hor non titi pare batzuek izugarritzko traba suposatzen zuten agintean den talde politikoarentzat. Titi bat, titi bi, hiru titi, lau titi... horiek prentsa salmenten erakuslehoietatik desagertarazi behar zituztela zioten lokaleko lehen orrietako tituluek. Alajaina! Badakigu gas-teiztarrok gure lurretan hotza dela nagusi urte osoan zehar kasik, baina hau da hau popularrek gure osasunagatik azaldu duten gehiegizko arre-ta, udazken-neguko moda epe aurretik aurkeztuz!!.

"HEROIEI BAT"

Jakina da oporren ostean pilak inoiz baino betea-go ditugula bueltatzen garela lanera eta popularrek herritarren lotsaizunarekin akabatzeko eta babesaren aldeko eskaerari men egin diote biziki... Batman berak ere ez luke hobeto egingo: zeru beltzean sagu-



Kikek bere buruari galdetzen dio zer gertatuko zatekeen berak neurri honen aurrean ezer esan ez balu...

zar formako irudi argitsuak hiritar baten -bakar bate-na bada ere- laguntza deia eskatzen du. Batmobila hartu eta haaa, boom, puff, choff, upss!!!, kioskero lizun horiek dituzten aldizkari anitzen artean porno-grafikoak diren horiek (hala nola, politika, ekonomia edota kultura tituluekin batera emakume baten bula-rak azalean agertzen diren horietakoak...) erakus-lehoietatik ezabatu dituzte superheroiek...

Nottingham herrian, berriz, jendearen artean haserrealdiak, sinesgaiztasuna eta barre-algarak. Nola da posible XXI. mendean inoiz baino aurre-rakoi eta modernoago, liberal eta zabalago eraiki-tzen ari den etorkizunerako gizartearen gorputz bilu-zi bat buru atzerakoien enamesgaizto handien bihurtzea? Hau ez da komikia jaun-andreak, Mazinger eta lagunak aspaldi desagertu ziren eta egun 2.000. urtean bizi gara! Hala ere, hiruko erre-gela honi jarraituz gero, "Un, dos, tres", familian ikusteko programa "atsegin" hura, gazteen goza-men erotzat uler genezakeen, baita "Los Beverly ricos" ere, non modan jarri ziren jantzi eta fraka bakero estuak bat baino gehiagoren zoramena pizteko zorian egon ziren...

En fin Serafin, hondartza, pizsina, beroa eta "destapea" utzi berri dugu atzean, mugimendu sexy bat, gora eta behera, gerria mugituz eta boom-boom goza ezazu zure gorputzaz entzun eta dantzatu udako terraza eta tabernetan, eta orain, horren ostean, ohituta ez bageunde bezala topless bakar batek gure neba-arreba txikien, seme-alaben eta lagunen koloreak piztuko dituzte? Mesedez jaun-andreak, seriozki hitz egin dezagun, erreality-teak argazki xume batek agerian utz dezakeena baino askoz gehiago islatzen du, ez ditzagun ait-zakia argudio bakoak asmatu, ez gaitezen ziniko-ak izan, biluztasunak ez baitio inori kalte egiten.

Udaleko Gizarte Saileko Alderdi Popularreko zine-gotzia eta ekimen honen arduraduna izan den Maria Angeles Castellanos honen inguruan elkarrizketatzen saiatu ginen. Dei piloa egin eta gero azkenean ezin izango zela esan ziguten, oso lanpetua zegoelako...





ETA KALEAK DIO...

1.- Zer iritzi duzu Udalak hasiera batean gorputz biluziak agertzen zuten aldizkariak, pornografikoak zirelakoan, kioskoetako erakuslehioetatik kenarazteko harturiko erabakiari buruz?

2.- Zein uste duzu izan zela neurri hau hartzearen arrazoia?

AMANDA MOTA. IKASLEA

1.- Nire ustez Udala urrutiegi heldu da neurri hau hartzean. Erdi Aroan gaudela dirudi.

2.- Azkenean atzera egin bazuten pisuzko arrazoirik ez zutelako izango da.



VANESSA PORRAS. IKASLEA

1.- Udalak hartutako erabakia-ekin ez nago batere ados. Gainera inor ez da jantzita jaio, baizik eta biluzik. Nire ustez gauza naturala da.

2.- Erabaki hori justifikatzeko ez dut arrazoirik aurkitzen.



ISIDRO FERNANDEZ.

LANTEGIKO LANGILEA

1.- Gasteiztar gehiengoaren iritziarekin bat eginez Udalak hartutako erabakia benetan desegokia dela uste dut.

2.- Aldizkari mota hauek kioskoetatik kentzea oso neurri tristea dela uste dut, ez dut horretarako beharrik ikusten.



NAGORE ZEBERIO. IKASLEA

1.- Nik uste dut ez dagoela txar-to gorputz biluziak agertzen diren aldizkariak kioskoetan egotea, beraz Udalaren erabakia gehiegikeria bat iruditzen zait.

2.- Agian haurrak gaizki heziko diren beldurrez zeudelako, baina nire ustez gauza batek ez du bestearekin zerikusirik.



JUANI MERINO.

ETXEKOANDREA

1.- Niri berdin zait non saltzen diren mota honetako aldizkariak.

2.- Gazteengan eragin txarra izango dutela pentsatzen dutelako izan daiteke...



LUIS ANGEL OLEAGA.

ABOKATUA

1.- Ez dakit kioskoak diren aldizkari hauek saltzeko lekurik egokienak ala ez.

2.- Aldizkariak ez dute inongo kalterik egiten.



TESTUA: MAIDER PEREZ ARGAZKIAK; AMAIA ZALDUA



eta HISTORIA ERREPIKATZEN DA !

Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak Carlos Pazos katalanaren "SINETIKON" erakusketaren kartela zentsuratu du alu eta zakil bat agertzen zirelako (estalita orain)

Erakusketa Amerika Aretoan egongo da azaroaren 26ra arte.

HILEKO LIBURUA...


"EUSKAL LABIRINTOAK ETA PASADIZOAK"

-GIDOIA ETA MARRAZKIAK: EVA GARCÉS CARRO

- Emakunde "Umore grafikoa" saria eskuratu zuen.
- Ohiko kolaboratzailea Emakunden grafismo eta diseinuan.
- Donostiarra.

-TESTUAK: ITZIAR GARCIA

- Gasteiztarra.
- Irakaslea.
- Ohiko kolaboratzailea Infomart Argitaletxean.



LIBURUAREN HARIA ETA HELBURUA: EUSKAL TRADIZIOAK AURKEZTEA IRUDIEN KONTRASTE GOGORRAZ. KASIK ENTZIKLOPEDIKOAK DIREN TESTUAK, EUSKAL HERRIKO SUSTRAIETAN OINARRITUTAKOAK, IRUDI MODERNOEN ONDOAN AGERI ZAIZKIGU; HORI BAITA HELBURA, KONTRASTE GOGORRA ERDIESTE, ETA LIBURUA GOGOETARAKO GUNEA IZATEA, IRUDI GUZTIAN EMAKUMEA BAITA PROTAGONISTA. HAUSNARKETARAKO AUKERA DA, BERAZ, LIBURU HONEK DAKARKIGUNA: MARRAZKIEN BITARTEZ TRADIZIOAREN BILAKAERA SOZIALA AZTERTZEKO PARADA, EMAKUMEA...

ATALAK: DANTZAK, DANBORRADA, ZEZENAK, PILOTA, INDARRA, SAGARDOA, ELIZA, APAIZAK, ABIZENIK LUZEENA, MARI, EDERTASUNA..., NESKAMEA, SARDINA-SALTZAILEAK..., JOSTAILUAK, TRADIZIOA HAUSTEA.

ETA ONDOREN... AFRIKA. EGILEA: KEPA ALTUNA, ARAMAIOARRA.

TRADIZIO PERUARRAK. EGILEA: JON MARTIKORENA, IRUNDA-



ARGITARATZAILEA: JEAN-FRANÇOIS SAURÉ (INFOMART argitaletxea)
Goiango etorbidea 11 - 01170-LEGUTIO

***Argitaratzailearen ezaugarriak: DIN A4 formatuko irudi liburuak argitaratzea, euskaraz eta gazteleraz, bertako historia eta ohituretan oinarriturik.**



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

arabarrok euskarari BAI



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

"Itsasoa ala baloiaren artean erabaki behar izan nuen"

Aurtengoa bere bosgarren denboraldia izango du Alaves taldean. Talde honekin estreinatu zen lehenengo mailan eta hor jarraitzeko ahalegin guztiak egiteko prest da 32 urteko bermeotar hau. Bere familia eta futbolaz aparte, Karmonak txikitatik liluratu duen itsasoa maite du eta baloia uzten duenean horrekin zerikusirik duen zerbaitetan ibiltzea gustatuko litzaioke. Bere burua langile-tzat jotzen duen defentsa honek ez du lokartu nahi, "aurrelari guztiak oso arriskutsuak izan daitezke" eta.





**- NOLA MOLDATUKO DA ALAVES-A
UEFAN AURTEN LIGA ETA KOPA HOR
IZANDA? ERRENTAGARRIA AL DA
HAIN GOGORRA GERTA DAITEKEEN
TXAPELKETA BAT?**

-Gasteizentzat UEFA txapelketa berria da, baina ilusio handia dugu guztiok eta ahal dugun bezain hobere egiten saiatuko gara, betiere gure gaitasunen barruan jokatzuz. Hala ere, argi daukagu Liga dela helburu nagusia, maila mantentzen ez badugu eginiko guztia ezerezean geldituko da eta. UEFAn ahal dugun guztia egiten saiatuko gara, baina inolaz ere ezin dezakegu Liga zokoraturik utzi.

-ESAN AL DAITEKE DAGOENKO ALAVES-A LEHENENGO MAILAN FINKATU DELA?

-Ez oraindik ez gara finkatu. Hiru urte daramatzagu hemen eta gauza onak egin dira etorkizuneko finkapen on bati begira, baina oraindik ez dugu postu ziurrik.

-ZEINTZUK DIRA AURTENGO DENBORALDIKO ALAVES-EN EZAUGARRIRIK NAGUSIENAK?

-Betikoak: lan handia, laguntasuna eta gauzak ondo egiteko gogo ikaragarria. Ez dugu inor baino gehiago garelako uste eta horrexegatik zelai barruan dena ematen saiatzen gara eta horrek taldeari asko laguntzen dio; hori da, nire ustez, ezaugarriarik inportanteena.

-NOLA AZAL DAITEKE UEFAKO AZKENENGO PARTIDUAN HAIN ZALETU GUTXI BILTZEA? NOLA ERAGITEN DIO HORREK TALDEARI?

-Ez dakit, hori zaletuei egin beharreko galdera da.

***"Zelai barruan
dena ematen
saiatzen gara"***

Bigarren mailan geundenean Kopako final garrantzitsu bat jokatu genuen eta horretara ere oso jende gutxi etorri zen. Egia esanda, ez dakit zein izan daitekeen horren arrazoia. Eta, tamalez, horrek eragin handia du taldearen gogoan; zalego on batek taldearen arazoak txikiago bihurtzen laguntzen du eta horrek joko hobeak dakar, dudarik gabe. Hala ere, badakigu betidanik taldearekin egon den jende asko badagoela eta haien laguntza izugarri esker-tzen dugu.

-SASKIBALOIAK ERAKARGARRITASUN HANDIAGOA IZATEA IZAN DAITEKE?

-Bai, izan daiteke. Baina, pertsonalki, Gasteizen futbola saskibaloia baino garrantzitsuagoa dela uste dut. Eta ez dut ulertzen inoiz ere Europako txapelketarik etxean bizi izan ez duen Alaves bezalako talde baten zaletuak zergatik ez datozen zelaira.

LANGILE ETA XEHEA

-NOLA HASI ZINEN FUTBOLEAN ETA NOIZ ERABAKI ZENUEN HONETAN BURU-BELARRI SARTZEA?

-Bada, honetan gauden gehienak bezala eskolan hasi nintzen ni futboleko jolasten. Ondoren, Bemeon, eta gero Sestao eta Eibarren izan nintzen. Eta erabakia? Ba ez zen batere erraza izan. Hogeitau urte neuzkala futbola uzteko zorian izan nintzen. Itsasora joateko aukera suertatu zitzaidan eta asko pentsatu behar izan nuen baloiarekin gelditu ala

"Hogei urte neuzkala futbola uzteko zorian izan nintzen. Itsasora joateko aukera suertatu zitzaidan"

ez. Sestaok erabakia hartzera bultzatu eta 2. mailan jolasteko aukerak jarraitzera animatu ninduen eta gaur arte.

-NOLA DEFINITUKO ZENUKE ZEURE BURUA ZELAI BARRUAN? ETA ZELAITIK KANPO?

-Pertsona bera naiz zelai barruan zein zelaitik kanpo; pertsona xehea eta langilea eta, batez ere, egin nahi eta egin behar ditudan gauzetan oso konstantea. Taldearen barruan besokoa eramaten duena izateak pozten nau baina taldeko beste bat besterik ez naizela argi daukat. Eremu pertsonalean halakoa ere banaiz. Nire kideei laguntzen saiatzen naiz eta horri gaitasun garrantzitsua deritzot.

-ZERTAN EMATEN DUZU DENBORA BALOIAREKIN EZ ZAUDENEAN?

-Gehien atsegin zaidana lagunekin eta familiarekin egotea da, betidanik egin dudana, Bermeon egon, portutik ibili, kirola egin... Alaba jaio zenetik berak hartzen du nire denbora libre gehiena. Baina betiko gauzak gustatzen zaizkit, lehenengo mailan jokatzek ez nau ezertan ere aldatu.

-ETORKIZUNARI BEGIRA, ZER EGINGO DUZU FUTBOLA UZTEN DUZUNEAN?

FITXA TEKNIKOA

• IZEN-ABIZENAK:

Antonio Karmona Herrera

• JAIOTZE-DATA ETA JAIOTERRIA:

1968-3-24, Bermeo (Bizkaia)

• IBILBIDEA:

Bermeo, Sestao eta Eibar taldeak, 96-97 denboraldian Alavesera iritsi aurretik.

• EZAUGARRI FISIKOAK:

1'75m., 78 kilo. Gaitasun fisiko ezin hobeak.

• EZAUGARRI TEKNIKOAK:

Aurrelari bezala hasi bazen ere defentsan ibiltzen da eta ezkerraldean ere ondo mugitzen da. Ondo baino hobeto betetzen ditu kapitain lanak.

-Uf, galdera zaila da hori. Nik ez diot inoiz momentu horri buruz pentsatzeari utzi eta horregatik ez nituen ikasketak baztertu. Informatikan tekniko naiz eta horrez gainera arrantza kapitaina ere, beraz, badut denbora zertan eman hau bukatzen denean.



D I - D A

• GAZTETAKO LEKU BAT?

Bermeoko portua, aita arrantzalea nuen eta beti joaten nintzaion itxoitera.

• LIBURU BAT?

Zientzi fikziozkoak gustatzen zaizkit. Azkena, Isaak Asimov-en "Robots Imperio".

• MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

Oso pozik eta lasai bizi naiz.

• ZURE ONETIK ATERATZEN ZAITU?

Pertsona lasaia naiz eta zaila da nire onetik irtenaraztea.

• AZKENENGO OPO- RRAK?

Mallorcan, nire familiarekin.

• ZER DERITZEUZU GRAN HERMANO MOTAKO TELE- BISTA SAIOEI?

Ez ditut jarraitzen.

• ITSASOA?

Itsasoa dena da niretzat. Nautikako ikasketak ditut, bermeotarra naiz eta aita arrantzalea. Itsasoa politena da, dudarik gabe.

• EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ?

Bai.

• JESUS GIL?

Ja, ja, ja. Bere taldearengatik "denetarik" egin duen presidentea dela pentsatu nahiko nuke...

• ALFONSO ALONSO? GASTEIZKO ALKATEA?

Ez dut ezagutzen.

ZELAI ZAHARRAREN XARMA

-ZER IRUDITZEN ZAIZU ZELAI BERRIA?

-Oso zelai polita da, dena itxita, guztiak eserita..., baina nik Mendizorrotzako zelai zaharra nahiago dut. Orain, futbolera bainoago jendea antzokira doala ematen du, eta futbola bizi eta sentitu egin behar da. Eta lehengo zelaian zale-tuek presio handiagoa egiten zuten, horrek konfidantza handia emanez. Hala ere, zelai itxiena momentuko joera da eta horietara ohitu beharko dugu.

-NOLA USTE DUZU ERAGINGO DIOLA TALDEARI KIROL- HIRI BERRIAREN PROIEKTUAK?

-Horrelako proiektuek onura handia egiten diote taldeari, lehenengo mailan finkatu dadin eta oinarri sendoak izateko gauza inportantea da. Kirol-hiri on bat harrobia lantzeko modurik onena da gainera. Horrela gerora hemengo gazteen gaitasunak aprobetxatzeko aukerarik egongo da. Hain bazkide gutxi izanda, Alavesek zaila dauka ekonomikoki hazteko eta hau beste diru-iturri egoki bat izan daiteke inbertsioak erakarriko dituelako.


-ALAVESEKO EUSKALDUN BAKARRENETAKOA ZARA...

-Hori entrenatzaileak nahi duen taldearen araberrako kontua izaten da, baina, bai, pena apur bat ematen du zentzu horretan euskal talde bat hain mugatuta egoteak. Baina garrantzitsuena sentimendua da eta badago.

-LIGAKO ZEIN AURRELARIARI DIOZU BELDUR GEHIEN?

-Guztiei, ez naiz inorekin batere fio. Kontuan izan behar da partidu bakoitza desberdina dela eta egun batean oso ondo markatu duzun jokalariek hiru gol sar ditzakeela...

*"Baina garrantzitsuena
sentimendua da
eta badago"*



ARGAZKIEN ARTEA-ARTEAREN ARGAZKIAK: "ZIKLOAK-CICLOS" ERAKUSKETA...



...Joseba Olalde Azkorreta argazkilariaren eskutik

- GASTEIZEN JAIOA 1959KO EKAINEAN
- 1982-84: ARGAZKILARITZA IKASKETAK LONDRESEN (CAMDEM INSTITUTE-EAN).
- LANA: EGIN ETA EUSKALDUNON EGUNKARIAN AZKEN 12 URTEOTAN. EGUN EUSKALDUNON EGUNKARIAN DAGO. HAINBAT FANZIN ETA ALDIZKARITAN UTZI DITU BERE ARGAZKIAK: ARGIA, RESISTE, EL TUBO, GEU ALDIZKARIA BERA... DISKO AZALETAN: HERTZAINAK, 7 ESKALE, MIKEL TELLERIA, JOSELU ANAIK...
- SARIAK:
 - VITAL KUTXA-REN "ARABA ZURE IKUSPUNTUTIK":
1. SARIA, 1989AN.
 - EUSKO JAURLARITZAREN SUSTATU SARIAK:
1. SARIA, 1990EAN.

TOKIA: Zalduondoko Lazarraga Jauregian

NOIZ ARTE: 00-11-5

ORDUTEGIA: Larunbatetan (17:30-19:30)

Igandeetan (12:00-14:00)

ANTOLATZAILEA: Zalduondoko

Kultur Elkartea



EZAUGARRIAK: "Zikloak" izenburupeko argazki erakusketa honetan izenbururik gabeko 50 argazki daude ikusgai, osotasunean ulertzeko obra baita: aurrerago zoragarria den "ardo" bihurtuko den mahatsondoaren bizi-zikloa eta bilakaeraren ikuspegi fotografikoa eta binakoa, urtea eta lau urtaroen adierazpena mahats eta mahatsondoaren barrena, negutik negura, mahasti elurtutik mahasti elurtura. Ikuspegi dokumentalak birtuala edo abstraktua islatzen du, estetikoki irudi autonomoak lortuz, eta testuinguru dokumentaletik kanpo koloreak, formak, espazio zehatzak ageri dira laukizuzen batean isolaturik, argazkia ideia birtualaren euskarria baita, sasoi honetako errealitate birtuala eta errealitatearen beraren birtualtasunaren artean jolasten delarik argazkilaria, informazio estetikoaren bila, subjektiboa, baina aldi berean erreala eta objektiboa. Manipulaziorik gabe, abstrakzioa nagusi da forma naturalotan.

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

EL  **BAR**
Kutxi

e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a


LA RIOJANA
jatetxea
on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

**Ka
La
Mu
TABERNA**

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5
Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz


JATETXEA
Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

bar • restaurante

albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea • Taberna

"EL CLARETÉ"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74



PARRAL
SAN FRANCISCO KANTOLA 4 GASTEIZ
TEL. 276833 01001

Asteburuetan
Jantoki
SEGURAN
Pintxoak
Asteleko
Pintxoak
Asteleko
Pintxoak

HEGOALDE
Euskaltegia

 **Matrikula zaituz !!**

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ

KulturCampus

Gasteiz



Kultur Hedakuntza

MUSIKA. TEATROA.

Euskal Herriko Unibertsitatea

AZAROAK 9:

El Saxo suena en Play-Back. Malagüero Teatro.
Biltegi zikinean kokaturiko gansterren istorio misterioitsua.

AZAROAK 14:

HIPO Sexpeare Teatro.
Zientzia-fikzioa planeta homosexualaren bila.

AZAROAK 16:

BENJAMIN TEHOVAL.
Rock eta blues gizon-orkestra aritua.

AZAROAK 23:

VAGON DE COLA.
Gasteiztar rock-talde oparo eta aditua.

AZAROAK 30:

RAMON LEAL eta BEATRICE BINOTTI.
Gure herrian eginiko bossanovarik onena.



Cast Mia Casteleyn

ABENDUAK 13:

FRANKI STEIN. Pikor Teatro.

ABENDUAK 19:

EURITAN BLAI. Izen berria euskal-folk musikari bikaintzat.

* Ekitaldi hauek

guztia Unibertsitate

Pabilioian burutuko dira 12.15etan.

ERAKUSKETAK

- **CAST MIA CASTELEYN.** 00-11-7ra arte

- **RADIO PIRENAICA (1941-77).**

00-11-14/00-11-24

- **GERARDO ARMESTO.**

00-11-27/00-12-21

ETA GAINERA...:

• **LITERATUR HITZALDI ETA**

AURKEZPENAK

• **ORHUM ZINE KLUBA:**

INGMAR BERGMAN Zikloa. Azaroa.

*Sarrera dohainik ekitaldi guztietan

Bagare Euskaltokiaren eskutik...

Azaroak kontu-kontari (ostegunero):

-00-11-9:

DORO, "kontu kontari, kanta kantari" (ipuinak eta kantak).
Landatxo Gizarte Etxean 20:00etan

-00-11-16:

MATTIN (Euskaldunon Egunkariko marrazkilaria) eta IXABEL AGIRRESAROBEn eskutik, "Irudipuinak", marrazki kontatuak eta kontu marraztuak. Landatxo Gizarte Etxean 20:00etan

-00-11-23:

PATXI ZUBIZARRETAK "Zikoinaren hegaldia" irakurtaldi sozio-poetikoaren estreinaldia ekarriko digu. Bagaren 20:00etan

-00-11-30:

BALTZISKUETAK helduentzako ipuinak kontatzen ditu. Helduentzat bakarrik!! Bagaren 20:00etan

ZINEMALDIA.

Abenduan Guridi Zineman, euskarazko zikloa. Adi egon!

IKASTAROAK.

"Euskal Jolasak": 12 ordu. Pedagogo animatzaile eta aisialdiko hezitzaileek prestatu programa. 10-15 lagunentzat. Interesgarria irakasle, begirale eta gurasoentzat. Matrikula: urriaren 30a arte.

*ADI VITORIA-GASTEIZKO XXV. NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIARI (URRIA-AZARO)!!!

*HAURRAK
ZAINTEZKO
TAILERRA
(0 URTETIK
3 URTERA)

Antolatzailea: AMA.

Arabako Amen

Elkartea

Laguntzailea:

Gasteizko

Udala/Gasteizko

udalerriko emaku-

meentzako ekintza

positiborako udal plana

Informazioa: Gasteizko Udala.



Batxilergo II. mailako Fisika irakaslea behar da klase partikularrak emateko.
Tlfnoa.: 945 27 90 70
(Miguel Prados).

PARRAL TABERNAK ESKAINTZEN DU...

URRIAK 31:

Petti. Geu Elkarteak antolatuta

AZAROAK 7:

Osvaldo Ciccioli. Argentinatik etorritako bakarlaria, Mezcla en libertad diskoaren aurkezpena

AZAROAK 14:

Madrildik, Jordi Estevez.
Bakarlaria

*Eta... Asisko Urmenetaren marrazki originalen erakusketak (ARGIA astekarikoak). Azaroaren 20ra arte Geu aldizkariak gomendatzen du!!!

AZAROAK 21:

Teatro Bergante. Titereak.
Titeres del demonio



JOSEBA ESTARTA. Eskulturak. Erakusketa

Brontzea, egurra, burdina, kuprea eta harria.

Arabako teknologi elkartegia. (Miñao. Araba)

2001. urteko urtarrilaren 12ra arte.

Astelehen-Ostirala, goizeko 9etatik 20:00etara

Informazioa: 945 29 69 00



"Zure ametsak egia bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

ametsak
Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43



Errege Atea 3, 4. bulegoa
01001 Vitoria-Gasteiz - Tel.: 945-26.58.96
e-maila: emaize@ euskalnet.net

EMAIZE

Sexologia Elkartea

Sexualitate eta Gazteriaren 2. kanpaina **"HELDU GAIARI"**

"Heldu gaiari" da urriko bigarren hama-bostaldian gazteei zuzenduta egin den bigarren sexualitate-kanpainaren lema.

16 urtetik gorako gazteei zuzendutako kanpaina honen oinarritzko irizpidea sexuarekin lotutako giza jokaera, gurari, sentimendu eta sentipenen aniztasuna eta aberastasuna erakustea izan da.

Helburu hori aintzat hartuta, hainbat eta hainbat kultur jarduera diseinatu dira, lantegiak, hitzaldiak, zinea, antzerkia, erakusketak, jaiak eta kontaketa erotikoen eta kartelen lehiaketak, besteak beste. Jarduera hauetako gehienak, aurreko urteko kanpainaren ildotik, iluntzeetan eta asteburuetan egin dira.

Aldabe gizarte-etxean ospatu dira guztiak, urriaren 20tik 22rako eta 27tik 29rako asteburuetan. Lantegietan eduki ugari jorratu da: "Xera", "Hennazko tatuajea", "Andreak andreetara", "Capoeira Angola dantza", "Neskatan eta mutiletan ikasi", "Armairutik irtetea", "Egungo dantza eta Hip Hopa", "Sukaldaritza afrodisiakoa", "Makilajea", "Arriskurik gabeko sexua", "Sentsualitatea Sentikortasuna", "Graffiti", "Harrapatzen duk/dun ala ez?", "Andreak eta gizonak XX.ean 10", "Zaindu zeure burua", "Zer egingo dut? Nora joango naiz?", "Maskulinitasuna", "Sexu osasun eta garbitasunerako irtenbideak". Gainera, Aldabe antzokiko eszenarioan izan dira antzerki eta zineak.

Aldabeko antzoki honetan bertan garatu da hitzaldien zikloa ere eta, hauen bidez, sexualitateari eta ingurune sozialari buruz gogoeta egin dute. Hitzaldi horiek astelehenetan (16an eta 23an) eta asteazkenetan (18an eta 25ean) izan dira; hitzaldi hauetatik azkena azpimarratu nahi dugu, bertan, mahai-inguru baten bitartez, osasunaren eta hezkuntzaren esparruetan gazteen sexualitatea nola erabiltzen den aztertu baita.

Arte eta lanbide-eskola izan da erakusketen kokagunea, urriaren 16tik 27ra bitartean. "Ostiral gaueko sukarrak" erakusketa interaktiboa egin da eta, bertan, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako paneletan egoera desberdinak planteatu ondoren, gazte bakoitzak jokaera bat edo bestea aukeratu ahal izan du.



Beste erakusketa batek gure hirian, bai elkarteei eta bai zerbitzu publikoei dagokienez, sexuarekin lotuta dauden baliabide guztiak erakutsi dizkigu. Kartelen I. lehiaketara aurkeztu ziren kartel guztiak erakutsi dira gainera.

*Gaztetxean jai bat ospatu(ko) da urriaren 28an, eta DJ batek animatuko du giroa.

Ondorengo elkarteak izan dira kanpaina hau guztia koordinatu eta dinamizatu dutenak:

Arabako Emakumeen Asanblada, Emaize Sexologia Elkartea, Arabako Hiesaren Aurrakako Herri Batzordea, Garanen Arabako Sexologia Batzordea, Era Berri. Fonat Fundazioa, Gaytasuna, Gaztegeys, Gaztelesbos, Gehitu eta Pipi. Udal-zerbitzu hauek ere parte hartu dute: Gazteentzako Sexualitate Aholkularitza eta Enfasis; eta guztia Gasteizko Udalaren diru-laguntzarekin egin da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Emaize Sexologia Elkartera (945 265896) edo Gasteizko Udaleko Gazteentzako Sexualitate Aholkularitzara (945 161583).

Idatzi-honen helburua gazte guztioi jarduera hauetan parte hartzeko deia egitea zen, baina Geu aldizkariak pairatu dituen gora-beherengatik ezin izan da alea lehengo atera eta egitarau interesgarri hau deia beharrean berri bilakatu zaigu. Hala ere, ez genuke datorren urteko kanpainak ihes egitea nahi... Hortaz, guzi@k erne!

Heldu gaiari pasioaz, beldurrik gabe, fantasiaz, konplexurik gabe, naturaltasunez, aurre iritzirik gabe. Hartu-eman goxo.

Hi ez haiz
familia honetan
agertzen



Hi ez haiz
arima
gabekoa



Hi ez haiz
inoren
esklabo



EZ!!!

Haizena Haizelako

GAZTETXULO

Euskal Herriko gazteen hilabetekaria

[aldizkari gazte bat gazteentzako]

Urriaren 6an kioskoetan

Fundación Sancho el Sabio-Fundazioa



Harpidetzarako telefonoa
943 461 883

**...ARABA OSOAN EUSKARA HUTSEZ ARGITARATZEN
DEN HILABETEKARI BAKARRA...
...LA UNICA REVISTA MENSUAL QUE SE PUBLICA
EXCLUSIVAMENTE EN EUSKERA EN TODA ALAVA...**

**...HARPIDEDUN BERRIEN BILA DABIL...
... BUSCA NUEV@S SUSCRIPTORES-AS...**

**Arabarrok merezi dugulako!
¡Porque en Alava nos lo merecemos!**

**Euskarak merezi duelako!
¡Porque el euskera se lo merece!**

**Helburua: egungo 2000 harpideak bikoiztea...
Hortaz, zuetako bakoitzak bakar bat eginez gero...
Objetivo: duplicar las 2000 suscripciones actuales...
Si cada un@ de VOSOTR@S hiciera 1 única suscripción...**

**Ez galdu Araba osoko euskara hutsezko hilabetekari
bakarraren harpidedun izateko aukera!!!
¡No perdáis la oportunidad de ser suscriptores-as de la única
revista mensual escrita en euskera en todo Alava!**



etxean jaso nahi dut

Izena

Abizenak

Helbidea

P.K.

Herria

Herrialdea

Bankua/Kutxa

Titularra:

Kontu zk. (20 dijiitoak)



**Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ**

**Hemendik aurrera Geu aldizkaria biluzik gera ez dadin!
¡Para que la Revista Geu no se quede desnuda de aquí en adelante!**